



Digitalizatzeko

Dinabide, Sakanako digitalizaziorako espazioa prest dago / 6-7

Euskarazko ikasketak Lanbide Heziketa institutura Erdi mailako ziklo batekin sartu dira / 2-4

Gaztetxoek proposatu eta gero, Sakanako Gazte Txokoen Topaketa hartuko du Altsasuk bihar / 8-9

Bihar I. La Peluso martxa zikloturista antolatu dute Irurtzunen, goizeko 8:30etik aurrera / 17

Benito Lertxundi abeslaria Irurtzunen izanen da bihar, 22:00etan, Atakondoa kiroldegian / 21

Hizkuntza indigenetan abestuko du Etxarri Aranazko abesbatzak etzi, 19:00etan, Etxarriko elizan / 22



Uxuerekin denok irabazle

BIHARKO NAFARROA!





Mireia Saez Bengoetxea eta Oihane Erro Piquero, euskarazko zikloko lau irakasleetako bi.

Euskara Lanbide Heziketan

Mendekotasun egoeran dauden pertsonendako arretarako teknikari ikasketak ematen ari dira Sakana LH institutuan. Ikastetxeak euskaraz estrainekoz eskaintzen du D ereduko ikasketa. Mireia Saez eta Oihane Erro irakasleek argibideak eman dizkigute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Biek ematen dituzue klaseak?

M. Gurekin batera Amaia Lazkoz eta Amaia Oroz ari dira.

Zenbat ikasleri?

M. 11 ikasle. 8 neska eta 3 mutiko. Lehen urtea izateko oso zerbaki polita izan da, benetan.

Ikasketa hauek sortu berriak dira, edo aurretik gaztelaniaz zeuden?

O. Ez dira berriak, Nafarroan gaztelaniaz daude. Baina ikasturte honetan Altsasun euskaraz egiteko aukera jarri dute. Zikloa euskaraz, berria da. Baina gaztelaniaz bazegoen.

Ikasketa materiala bazegoen, beraz.

Zuei dena itzultzea tokatu zaizue?

M. Egia esan hainbat liburu hartu ditugu eta gehien gustatzen zitzaguna, batetik eta bestetik, dena itzultzen joan gara.

Hiztegiarekin zalantzak?

O. Gu Lanbide Heziketako irakasleak gara, ez itzultzaileak. Denbora asko eman dugu material guztiak itzultzen, liburu egokienak aukeratzen... Horrek nahikoa denbora kendu digu.

Hezkuntza Departamentutik laguntzaren bat eman dizuete?

M. Ez. Gure kontu ibili gara.

Zer da mendekotasuna?

M. Mendekotasuna bide desberdinetatik etorri daiteke. Izan daiteke pertsona bat mendekotasun egoeran egotea jaiotzetik duen gaixotasun bategatik. Edo urteetan zehar sortutako zerbaitegatik. Istripuengatik ere sortzen da. Endekapenezkoa izan daiteke baita. Azkenean, pertsonari behar berriak sortzen zaizkio bere eguneroko bizitzan autonomia falta izatean.

Autonomia falta duten pertsonak laguntzeko teknikariak prestatu behar dituzue.

M. Hori da. Laguntza emateaz aparte, mendekotasun egoeran dagoen pertsona horrek berak parte hartzea sustatzen da. Ahalginak egiten dira bera egoera horretan hobetzeko eta bera izateko bere bizitzako gidaria.

Ez dela soilik "mantentzea egitea".

M. Saiatzen gara beraiek ere euren bizitzaren jabe izaten. Tresnak, bitartekoak ematen zaizkio. Horrekin espero da bere bizia errazagoa egitea.

Tresna horiek emanda pauso handiak ematen ditu pertsonak, ezta?

M. Bai. Kristorenak, gainera. Izan daiteke komunikazioarekin harremana duena. Pertsona batek bat batean hizkuntza edo komunikatzeko gaitasuna galtzen badu, zuk jartzen badiuzu bere kasurako aproposa den sistema bat... Piktografia taulak, azkenean, oso ezagunak eta baliagarriak dira demenzia-eta duten pertsonendako ere. Autismoarekin askotan erabiltzen da. Bide hori zabaldurik pitteka-pitteka pausoak ematen dira eta hiztegia zabaltzeko aukera suertatzen da. Eta komunikatzeko gaitasuna eskuratzen dute. Eta komunikazioan esaten dudan moduan, beste arloetan berdin. **Teknikariari mendekotasuna duen pertsonaren ezagutza eta familiak emandako informazioa baliagarria izanen zaio, ezta?**

M. Hori da. Teknikariak diziplina arteko talde baten barruan daude eta informazioa hartuko dute, bai familiatik, bai pertsonarengandik ere. Garrantzitsua delako pertsonari berari galdezea bere egoeraren, interesen, beharren eta gaitasunen inguruan. Beste medikuekin, fisioterapeutarekin... harremanetan egonen da teknikaria, pertsonarendako plan on eta egokitua egiteko. Teknikaria pertsona horrekin denbora asko egonen denez, jarraipena egingen dio. Eta ebaluazioa. Lortutako informazio guztia erregistratuko du eta gainontzeko taldekideekin partekatuko du.

Zenbat urteko zikloa da?

O. Zikloak bi ikasturte ditu. Lehenengoa teorikoa da. Bigarren

mailan martxoan despeditzen dituzte klaseak eta enpresetan praktikak egiten dituzte.

Ikasketak despedituta, ikasle bat zer ikasita aterako da?

O. Ziklo honekin lantzen dena da mendekotasun pertsona batek behar dituen arreta guztiak: soziala, osasuna eta psikologikoa. Pertsona horrek dituen behar horiek guztiak nola aurrera eramán ikasiko dute.

Osasun arloko zein prestakuntza jasoko dute?

O. Nik ematen diet osasun arreta. Gorputzak, organismoak nola funtzionatzen duen ikasten dute. Mendekotasun egoeran dagoen pertsona batek izan ditzakeen arazo guztiak. Esaterako: oxigenoterapia badu; botikak hartzen baditu, nola eman behar zaizkion; arnasteko zer edo zer behar badute, nola lagundu; posturak ohean, jarrera aldaketak nola egin...

Mugikortasunak bereak ditu, ez?

O. Bai. Nola pasa ohetik gurgildun aulkira. Nola lagundu mugikortasun arazo bat duen pertsona bat, pausuak emateko nola lagundu... halakoak.


Hori ohikoena izan daiteke. Baina zer da laguntza soziala?

M. Etxerako laguntza modulu bat dute. Hor erakusten zaiena da pertsonak autonomia murriztua daukala eta orduan beraiek teknikari gisa haiei laguntzen egon behar dutela. Etxean dauden behar guztietan laguntza ematen diete teknikariek, esaterako: janaria prestatzen, erosketak egiten, garbiketako gauzak egiten ere... Udaletxean, osasun etxean, gizarte zerbitzuetan tramineak egitea ere.

Azkenik, arlo psikologikoa legoke.

O. Ikasten dute zahartzaroen dauden beharrak zein diren, haien ezaugarriak. Trebetasun sozialak ere lantzen dira. Komunikazioa...


M. Komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonen dauden sistema alternatibo eta handigarrrien inguruko ezagutzak jasotzen dituzte, eta praktikara eramaten ditugu. Esaterako, zeinu hizkuntza, komunikatze-



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com


KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com




Etxe pasiboetarako egokia
5 9000

Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aperteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

ko piktografia taula. Oso baliagarria izaten da.

Ikasleak etxeetan edo erakundeetan lan egiteko trebatuta aterako dira, ezta?

O. Bietan, bai.

Batetik bestera desberdintasunik dago?

O. Etxe batean eta erakunde batean dauden beharrak desberdinak dira. Etxe batean, dena barne hartzen du, pertsona jaikitzen den momentutik oheratzen den arte. Teknikaria etxe horretan lan egiten egoten den denboraren arabera. Erakunde batean eginbeharrak desberdinak dira. Gehienbat laguntzaile moduan egotea da. Ez da bakarrik egonen, baizik eta jende gehiagorekin.

Erakunde batean aritzeko, lantaldean lan egiten ikasi beharko dute.

M. Garrantzitsua da taldean lan egitea. Etxe batean bakarrik egonen dira mendekotasuna duen pertsonarekin. Egoitzetan baldin badaude jakin behar dute taldean lan egiten. Hori oso garrantzitsua da.

O. Etxerako laguntza egiten dutenetan, kontratatu dituzten tokiaren arabera, badakite diziplina arteko talde baten barne egonen direla eta koordinazioak eta egin beharko dituztela ere. Besteei jakinarazteko zer nolako beharrak edo aurrerapenak egin dituen pertsonak.

Galdetu diezue ikasleei zergatik eman duten izena?

M. Batzuek interesa dute, benetan. Beste batzuena izan da bidean aurrera egin ahal izateko, Erdi mailako ziklo bat egiten dute eta gero askok kirol munduan sartu nahi dute, beste batzuek haurrenean. Baina benetan interesa azaltzen dute pertsonen laguntzen, pertsonenikiko tratuan.

Zer moduz ikasturtea?

O. Lan asko egin dugu, eta egiten ari gara oraindik. Ziklo berri bat martxan jartzeak denbora asko eskatzen du. Baina oso kontent gaude. 11 ikasle ditugu. Talde polita da. Ttirriki-ttirriki zikloa martxan jartzen ari gara.

Ikasleek aprobetxatu dute?

M. Benetan, talde ona daukagu. Interesa dutenez, parte hartzea



eskertzen da, eta gure klaseak eramangarriagoak dira.

Lanbide Heziketako bereizgarria praktikak dira. Heldu den urtekoak lotuak dituzue?

O. Oraindik lotu gabe daude. Hurrengo ikasturtean guztia antolatuko dugu. Aurten bakarrik klaseak eta modulu batzuetan tailerra egiten dute. Ordu praktikakoak dituzte.

Besteen aldean, zuen kasuan tailerra berezia ere izanen da.

M. Osasun eta etxerako laguntzarako tailerrak ditugu. Osasunarekin erlazioz gertatzen guztia, mobilizazioak egitea eta beste. Etxerako laguntzarako tailerlean litzatezarena, garbitzearena, janaria prestatzearena... batez ere horretan oinarritzen da.

O. Osasuneko tailerlean oraingoz artikulatutako bi ohe ditugu, mugitu daitezkeenak. Garabiak ere baditugu. Mobilizaziorako hainbat tresna: taka-takak, makuluak... Bi popin ditugu, simulazioak egiteko: pertsona baten higiea nola landu lantzen baitute, jarrera aldatzeko... Hainbat osasun material. Bestetik, sukalde oso bat dugu.

M. Sukaldean zerotik hasi da. Dena guk muntatu dugu. Guk egin dugu erosketak zerrenda. Aurrekontu bat aurrera eramaten ikasi dute. Horretan oinarrituta erosi ditugu bai produktuak bai tresnak eta dena. Janaria prestatzeko behar den guztia

dugu. Lisatzeko taulak eta lisaburdinak ere bai. Lehorgailua. Garbigailua. Ontzi-garbigailua... Material dexente daukagu eta ikasleei aukera ematen die praktikan jartzeko, agian etxean arropa erretzeko arriskuagatik ez daukaten aukera hori hemen dute, ausartzen dira. Hemen ikasten ari dira.

Titulua eskutan non lan egiteko aukera izanen dute ikasleek?

O. Gehienbat egoitzetan lan egin dezakete, eta etxeetan ere bai. Mendekotasun egoera daukan pertsona bati arreta emateko teknikari gisa.

Administrazioaren deialdietara aurkezteko aukera izanen dute, ezta?

M. Zerrendak ateratzen direnean beraiek euren titulazioarekin lan egiteko aukera izanen dute.

Euskaraz ikasi bai. Baina klasean euskaraz hitz egiten dute?

O. Beno. Kostatzen zaie. Hor egon gara pixka bat saiatzen. Sakanako ikasle asko daude baina Iruñekoak diren ikasleak ere badaude. Egia da euskaraz badakitela baina, nik uste, institututik kanpo dituzten harremanetan ez dutela hainbeste euskara erabiltzen. Oso erraz pasatzen dira gaztelaniaz hitz egitera. Saiatzen gara hor pixka bat. **M.** Batzuek aurreko ikasturtean gaztelaniaz ikasi dute. Haiendako ere aldateta izan da. Hori nabaritzen da.

Beste irakasleek euskara gehiago entzuten den edo ez esan diezute?

O. Irakasleen artean, behintzat, bai. Euskaldunak gara eta gure artean euskaraz hitz egiten dugu. Ikasleak diren eskualdearen arabera nabaritzen da euskaraz gehiago edo gutxiago egiten dutela. Esaterako, Arbizu eta Etxarri Aranatz aldeko ikasleek euskara maila handiagoa dute. **Ikasturtea despeditzeko gutxi falta zaizue, ezta?**

O. Azkeneko gauzak prestatzen ari gara. Hilabete falta zaigu. Azkeneko txanpa da.

Azterketak gaintutako dituzte?

M. Ia, ia. Hori espero dugu. Printzipioz ongi doaz, baina, sorpresak egon daitezke. Saiatzen jarraituko dugu.



LH euskaraz ikasten ari dira Lander, Kai, Mara eta Goizane.

"Laguntzea gustatzen zaigu, eta euskaraz ikasi nahi genuen"

Goizane Elizalde, Lander Goñi, Kai Karasatorre eta Mara Martis ikasleek euren ikasketen berri eman digute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Lehenik, Iruñetik Altsasura. Nolaz?

G. eta L. Zikloa euskaraz delako, eta Iruñean ez dutelako euskaraz eskaintzen.

Zergatik eman zenuten izena?

M. Jendea laguntzea gustatzen zait.

K. Euskaraz zen, eta hori guztia. Jendeari laguntza ematea gustatzen zait. Gauza berria probatu nahi nuen. Hemen ikasten hasi nintzen, eta gustura.

L. Laguntza eskaintzeagatik. Eta euskaraz zelako.

G. Gauza bera. Erdi mailako zikloen artean nire gustuekin hobekien bat egiten duena da. **Noizbait mendekotasun egoeran dagoen pertsona bat zaintzea tokatu zaizue?**

G. L. eta M. Ez.

K. Zaintzea ez, baina entrenatzaile moduan, futboleko bai tokatu zaidala.

Ikasketak espero zenutena dira?

M. Ez. Pitta bat zailak, baina, beno.

K. Ez nuen espero horrela izatea. Uste nuena baino hobea da.

L. Nik horrela espero nuen. Baina uste dut praktiketan gehiago ikasiko dugula.

G. Nik ez nuen horrela espero baina bikaina iruditzen zait.

Zikloa bukatuta zer irteera profesional ikusten diozue?

G. Dexente daude. Beno, ospitaleetan uste dut ezin dugula, baina egoitzetan eta etxez etxe laguntzan, horrelakoetan bai. Nik uste dut asko daudela.

Gainontzekoek zuen burua egoitzetan eta etxez etxe ikusten duzue?

L. Bai.

K. Nik gehiago txikiekin ikusten dut neure burua. Asko gustatzen zaidalako.

M. Ni bai, umeekin.

Non lan eginen zenukete gustura?

M. Ez dakit. Ikastola batean edo.

K. Berdin, ikastola batean.

L. Ludoteketan, eta halakoak.

G. Nik nahiago dut agureekin. **Haurrekin ibili nahi duzuenok, baduzue zerbait buruan?**

M. Haur hezkuntza egitea.

K. Oraingoz hau eginen dut. Eta gero ikusiko dut.

L. Kairen modukoa naiz. Baina Haur Hezkuntza edo Gizarte Integrazioa... Halako ikastaroak.

Adinduekin lan eginen duzula esan duzu, Goizane. Zein asmo?

G. Ikasten jarraitzea. Momentuz, Goi mailako ziklo bat egitea pentsatu dut. Oraindik ez dakit. Baina, agian, Haur Hezkuntza... nori daki. Momentuz hau, gero gerokoak.

Euskaraz hitz egiten duzue?

L. Klasean gutxi. Eta atsedendian eta ez.

Zer da, ohituragatik?

G. Iruñean ez dugu ia euskaraz hitz egiten. Etxarrikoak eta Lizarragakoak diren bi ikasleak euren artean asko hitz egiten dute euskaraz. Guk ez. Eta Altsasukoak ezta.

Pasabidean edo atsedendian?

K. Azkenean, ni etxarriarra izanda euskaraz hitz egiteko ohitura dut. Baina altsasuarrak eta iruindarrak erdaraz hasten zaizkizunean, nahi gabe txipa aldatzen duzu, eta erdara ateratzen zaizu.

LHko eskaintza

Goi mailako zikloak: industria mekatronika eta Fabrikazio Meekanikoko Produkzioaren Progra-

mazioa (ikasketa duala). **Erdi mailako zikloak:** mantentze-Lan elektromekanikoa, soldadura eta galdaragintza, araubide bereziko kirol ikasketak (mendi ertaina edo

eskalada) eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza (euskaraz). Eta **Oinarritzko LHko** merkataritza zerbitzuak eta lan-gileendako **profesio ziurtagiriak.**

Euskaraz ikasteko ikasleek grebara jo zuten

Altsasuko Lanbide Heziketan euskarazko ikasketak egiteko mobilizazio handiak egin ziren 1993-1994 ikasturtean. Ikasleak hilabetez greban izan ziren. Duela 26 urteko protestaldiaren oihartzuna ekarri dugu hona

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Euskararen Legea 1986koa da. Han jasotzen da (24. artikulua) euskarazko irakaskuntza aukeratzen duen guztiak euskarazko irakaskuntza jasoko duela. Lege horrek Sakana eremu euskaldunean kokatu zuen. 1986ko udaberri hasieratik mobilizazio ugari egin ziren Sakanan Lanbide Heziketa (LH) eta Batxilergo Balioaniztun Bateria (BBB) euskaraz izan zitezten. BBBko euskarazko ikasketak 1986-1987 ikasturtean hasi ziren. Baina ez LHkoak. Euskara ikasketak profesioaletara iristeko 32 urte itxaron behar izan dira.

Unibertsitatez kanpoko euskarazko irakaskuntza erregulatzen zuen 1988ko 159/88 Foru Dekretuan jasotzen zenez, irakaskuntza ertainean ikasgela bakoitzeko 25 ikasle behar ziren gutxienez. Zurgintzako ikasketak Nafarroa osoan soilik Altsasuko institutuak eskaintzen zituen orduan. 92-93 ikasturtean A ere-



LHn D eredia eskatzen Iruñean. ARTXIBOA

duan 16 ikasle eman zuten izena eta 10 D eredian. 93-94 ikasturtean, berriz, A eredian 18 eta D eredian 10. Aipatutako lehen ikasturtean zura ikasketetan 19 ordu eman ziren euskaraz astero. Hurrengoan, 11.

Kopuruak behera egin zuten. Gainera, Nafarroako Gobernuak ez zuen irakasle elebidunak kontratatzeke erabakirik hartu: 5 euskaldun eta 22 erdaldun. 25 ikasleko kopurua lortu ez zenez ez zen D eredurik ezarri. Bitar-

tean, euskarazko ikasketak eskaintzen zituen Aguraingo institutuan Sakanako 100 ikasle zeuden matrikulatuta. Sakanatik UPNko Hezkuntza Departamentuari leporatu zioten ikasle horien gastuei ez erreparatzea, berak gaintetik gastu bat kentzea eta D ereduaren alde ez bustitzea.

Hilabete greban

Institutuan 93-94an zurgintzako lehen ikasturtea euskaraz 8 ikasle ikasi nahi zuten, bigarrean 10ek (bi mailetan asteko 30 orduetatik 15 ordu zituzten euskaraz), elektrometaleko lehen mailan 4 (6 astean) eta bigarrean 2 (3 astean). Ikasketak euskara hutsean egitea 20 ikasle eskatu zuten. Javier Markotegi hezkuntza kontseilariak zioen zurgintzako ikasketak D eredian eskatu zutenek ikasketen erdia euskaraz zutela eta elektrometalean % 20. Lanbide Heziketako ikasleek Altsasuko institutuan euskarazko irakaskuntza aldarrikatzeko mobilizazio ugari egin zituzten. Irailaren 30ean hasitako kurtsua egunero ordu bateko geldialdia eginez hasi ziren. Baina berehala greba orokorra bilakatu zen. Ikasleak soilik euskarazko klaseetara joaten ziren. Institutuko gainontzeko ikasleek, elkartasunez, egunero bi orduko geldialdiak egin zituzten.

Altsasuko alkate Jose Manuel Goikoetxeak eta Sakanako Mankomunitateak ikasleen aldarri-

kapenarekin bat egin zuten. Lastailaren 19an 150 bat guraso institutuan elkartu ziren eta salatu zuten gobernuak haien eskaerak ez zituela kontuan izan. Jose Antonio Urtasun zuzendaria kritikatu zuten “argi ez adierazteagatik, ezta garaiz, kurtsua D ereduko ikasketekin hasiko ote zen”. Eskola Kontseiluaren biltzea exijitu zuten.

Ferietan protesta egin ondoren, Ikasle Abertzaleak deituta euskarazko LH ikasketen aldeko protesta Iruñera eraman zuten lastailaren 21ean, Markotegik Parlamentuan azalpenak eman behar zituela baliatuz. Manifestazio jendetsua egin zen. Kontseilariak argudiatu zuen ez zegoela nahikoa ikaslerik, populazio arazo bat zegoela. Eta ekonomia arazoa ere argudiatu zuen, zurgintza eta elektrometale euskaraz emateko beste bi irakasle kontratatu behar ziren. Altsasun D eredia ezartzeko eskatu zioten PSOEek, HBk, EAK eta IUk. Ia hilabete greban egon ondoren, lastailaren 25ean, ikasleak klasera bueltatu ziren. Hala ere mobilizazioekin segitzeko asmoa iragarri zuten.

92-93 KURTSOAN ASTEAN 30 ORDUTIK 19 EUSKARAZ ZIREN, 93-94AN, BERRIZ, 11RA JAITSI ZUTEN

Kronologia laburra

1986-03-02 LH eta BBB euskaraz ikastearen aldeko manifestazioa Altsasun.

1986-03-04 Sakandarrek eskaera Iruñeko Zientzia eta Hezkuntza Ministerioaren egoitzaren aurrera eraman zuten.

1986-03-21 BBBko eta LHko euskarazko ikasketak eskatzeko agerraldia egin zen Iruñeko Gaztelu plazan. Bitartean, Sakanako ordezkariak eta hezkuntza arduradunak bilera egin zuten.

1986ko irail akabera Euskarazko BBB ikasketak hasi ziren Altsasun. LHkoak ez.

1988-05-27 Altsasuko Udalak herriko LH institutuan euskarazko ikasketak eskatzeko mozioa onartu zuen. Gerora Sakanako Mankomunitateak eskaera bere egin zuen.

1989-01-20 Sakanako 9 udaletako ordezkariak LH institutuko egoera aztertzeke bilera egin zuten. Ikasketak euskaraz eskaintzeko beharra nabarmendu zuten.

1990-02-14 Roman Felonesi udal ordezkariak LHko institutuan euskarazko adarra jartzea eskatu zioten.

1992-06-22 LH institutuan euskarazko adarra eskatu zuten Mankomunitateko, udal eta Guraso Elkarteetako eta ikastetxeetako ordezkariak.

1992-10-30 Altsasuko LHko Eskola Kontseiluan jakinarazi zen ikasgai batzuk euskaraz emanen zirela. Mank-ek euskarazko adarra aldarrikatzen segitu zuen.

1994ko iraila Hezkuntza Departamentuak jakinarazi zuen zurgintza ikasketak ez zirela euskaraz izanen gutxieneko matrikula kopurua (15) ez zegoelako.

1998-02-17 Sakanako Prestakuntza Batzordea Nafarroako Parlamentuan izan zen. Eskaeretako bat Altsasuko LHn ikasketak guztiak A eta D eredukoak izatea izan zen.

2000-05-19 LHko Ikasle Abertzaleak eta Euskal Ikasleen Asanbladak euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatu zuten. Ikastetxean ikasle kopuru handia euskalduna zela gaz-

tigatu zuten. Eta salatu Hezkuntza Departamentuak ikasturte berrirako egindako irakasle plaza deialdian ez zuela euskara kontutan hartu.

2000-06-30 Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak ez zuen onartu LH instituturako irakasleen plazak elebidunak izatea.

2002-10-18 Sortzen-Ikasbatuaz-ek Parlamentuan LH institutuan ez zegoela euskarazko irakaskuntzarik salatu zuen.

2004-02-27 Altsasuko Udalak Nafarroako Gobernuari eskatu zion LH institutuan euskarazko adarra jartzeko.

2004-05-25 LHko ikasleak ikastetxean euskaraz ikastearen alde agertu ziren. Eta hizkuntzen inguruan egindako inkesta baten berri eman zuten. Euskaraz zekitenen % 97,22-k euskaraz ikasteko aukera egonez gero euskaraz ikasiko lukeela adierazi zuten.

2004-09-07 Parlamentuan ikasleen eta Mankomunitatearen ordezkariak LH institutuan D eredia jartzeko eskatu zuten.

2009-05-06 Carlos Perez-Nievas hezkuntza kontseilaria LH institutuan izan zen. Egin zizkioten eskaeretako bat euskarazko ikasketak ezartzeara izan zen.

2011-02-24 Altsasuko Udalak aho batez Hezkuntza Departamentuari eskatu zion “Lanbide Heziketa institutuko gaur egungo eskaintza euskaraz egiteko aukera izatea eta egungo eskaintzaren azterketa sakona egitea”.

2014-03-27 Ikasleen greba LOMCE eta beselakoak salatzeke. Euskaraz ikasteko trabak ere salatu zituzten.

2016 LH institutuko Plan Estrategikoan jaso zen, besteak beste, ateratzen diren funtzionario plazek euskara eskakizuna izanen dutela, eta gaztelania eskakizuna duen funtzionarioen bat ikastetxetik joaten bada, gaztelaniazko plaza desagertu eta euskarazkoa sortuko dela.

2018ko iraila LHn Erdi mailako ziklo bat euskaraz ematen hasi ziren: Mendekotasun egoeran dauden pertsonendako arretarako teknikiari ikasketak. Osoa: www.guaixe.eus-en



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

Ai, ama!

Amaren Eguna dela eta whatsapp-etik batek baino gehiagok jasoko zenuten iragarkia, udaberria iritsi dela gogorarazten digun saltokiak egindakoa. Amei opariak egiteko berezi bila sortutako iragarkia ikusi ez duzenontzat, haratx zer esaten duen: %97an gorputz eta arimaz aritzen bazara, %3ko berekoikeria baduzu eta %0,0 soilik kexatzen bazara izan zaitezke %100ean AMA.

Orain gutxi arte, publizistek argudiatzen zuten estereotipo sexistak erabiltzeak emaitza onak bermatzen zituela. Kanpaina hau sustatu dutenek oraindik ere sinesmen honekin dihardute, bestela hau ezin daiteke inondik inora ulertu. Antza, marketin morea eta feminismoa ez dute usaindu ere egin. "Jantziak" daude iragarki zeharo sexistak hedatzen.

Garai batean, Iruñeko bide guztiek "Corte Ingles"-era eramaten zutela esaten zen. Eskerrak, amatasunaren bide horiei muzin egin eta beste karrika batzuk erabiltzeko aukera ere badela. Besteen desio eta beharrei kasu egitea agintzen diguten ehuneko hori betetzen ez gara ahalegintzen, zorionez batek baino gehiagok berekoikerian %3a baino gehixeago dugu eta kexatzeko orduan hutsaren hurrengoan ez gara erortzen. Ni neu Jutta Bauer-en "Madrechillona" ipuinaren jarraitzaile amorratua naiz.

Eskerrak salgai jartzen diguten "kontu" horretaz gain, gaurkotasan eta aldarrikapen handiagoko mezuak ere iristen zaizkigun whatsapp-era. Esaterako, "Kontu bete poltsa", Sare Herriarra Elkartek emakumea eta espetxearen inguruan osatutako ikus-entzunezkoa. Bertan jorratzen da espetxean erreproduzitzen den sistema patriarkalak duen eragina, preso dauden emakumeengan zein kanpoan diren senide eta lagunengan eragiten duena. Egitasmo horrek, beste zenbait gaiez gain, ama izatearen "karga" arintzeko urratsak ematen ditu, saltokiko iragarkiak ez bezala, "ama ona" beste modu batera ulertzen has gaitezten. Irargarki matxistan ageri diren "emakumei ezarritako mandatuen" ehunekoak guztion artean konpartitzeko eta erantzunkidetasuna sortzeko bidean sartzeko.

Einsteinek esan omen zuen errazagoa dela atomo bat desegitea aurreiritzi bat baino. Horregatik, gauzak errazak ez direla jakin arren, temati eta kaxkagor jarraitu beharko dugu, aurreiritzi-, estereotipo- eta rol-atomo matxistak desegiten.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

11 galdera erantzuteke Erantzunik gabeko galderen aurrean, herrien besarkada.

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

A28ko hauteskundeak eta gero aterako den gobernuak hainbat galderari erantzun beharko die, besteak beste:

- Nola liteke 1993. urtetik gutxienez 35.597 pertsona hil izana Europa gotorleku honetara iristeko ahaleginean, ez zutelako izan segurtasunez eta bermez erabili ahal izateko bide eta prozedurarik?

- Zergatik, ezin izan dira sikiera birkokatu hilabeteak eta urteak Europako hegoaldeko herrialdeetan bizi-baldintza tamalgarrietan pilatuta daramatzaten milaka pertsona?

- Zer-nolako sexu-erasoak pairatzen dituzte emakumeek herrialde batetik besterako ibilbidean, bai eta haien salerosketan aritzen diren mafien menpe dauden bitartean ere, eta EBk ez du horrekin guztiarekin amaitzeko inolako neurri eraginkorrik jartzen?

- Nola justifikatu Europar Batasunak (EB) —muga guztiak desagerraraziko zituenak— azken urteotan bertako herrialdeen artean munduko beste edozeinek (Trump barne) baino muga gehiago eraiki izana?

- Zenbat diru publiko erabiliko da europarren eta migratzaileen bizi-baldintzak hobetzeko? eta Marokon edo Turkian atxiloteta/kontzentrazio eremuak eraikitzeko?

- Egia al da Segurtasun eta Defentsa politika europarrak

milioika euro gastatzen dituela Libian, Nigerren, Malin, Somalian edota Ugandan, besteak beste, poliziak eta militarrek entrenatzeko? Herrialde horietako armadek immigrazioaren kontrako eginkizunean parte har dezaten, «terrorismoa» ekiditeko aitzakiaz?

- Noiz kenduko dituzue behingoz Ceuta eta Melillako "kontzertinak"?

Eskubide horien urraketari, lehen, kolonialismoa esaten ziztaion, eta historiak, azkenean, kondenatu egin zuen. Orain, Europako Batasuna atzera ekartzen ari da, eta Salvinik, Orbanek, Amanecer Doradok eta Voxek txalotu eta gorrotoa astintzen dute. Era berean, egunetik egunera nabarmenagoa da horixe dela Espainiako Gobernuak hautaturiko bidea. Une honetan ankerrenetakoa

da EBren politika aplikatzeko orduan.

Bere nekropolitikaren baitan, erreskaterako ontzien lana eragozten du, hego muga esternalizatu du, «lehengusu marokoarraren» erresuma batera demokratikoari eginkizunik zikinena egin dezan ordaintzen dio, eta eskubideen aldeko ekintzaileen zein migratzaileei elkartasuna adierazteko erakundeen lana kriminalizatu egiten du.

Europar justizia gehiago eta laguntza humanitario gutxiago behar dugu. Gezurrezko krisien kudeaketa gutxiago, eta pertsona orori eta edonon giza eskubideen aplikazio gehiago.

Horixe da hain zuzen, Euskal Herriko hainbat tokietan aldarrikatu dena maiatzaren 4-eta 5ean, Herrien eta pertsonen arteko besarkada ekintza europarrean.

Gurekin harremanetan jartzeko

661 523 245



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
Miren Arregi Olivenza
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus
Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundifano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Dinabide, eraldaketa digitalerako etxea

Enpresetako langileak eta, orokorrean, sakandarrak teknologia berrietan trebatzeko espazioa da Inasa zeneko bulegoak hartu duena. Pasa den ostegunean aurkeztu zieten enpresako eta gobernuko ordezkariak eta herritarrei

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Altsasun igandean, Irurtzunen sanmartinetan, artisauak lanean ikusteko aukera izaten da. Garai bateko ogibideak nolakoak ziren ikasi eta orduko bizimodua nolako zen irudikatzea laguntzen dutenak. Gure birramonen eta birraitonen garaiko zenbat lanbidek segitzen dute gaur egun? Egon badaude, baina dauden lanbide horiek ez dira garai batean bezalakoak. Gainera, denbora pasatzearekin teknika eta zientzia aurrerapena etorri da eta hortik gure birramonek eta birraitonek amestu ez luketen ekonomia berria eta lanbideak sortu dira, esaterako: auto mekanikari, autobus gidari, zinemagileak, elektrikariak, hegazkin pilotu...

Teknologia aurrerapenak ez du etenik eta arlo digitalean etengabe berrikuntzak sortzen ari dira. Sortzen ari diren teknologia horien ezagutzatik lanbide berriak etorriko dira. Izan ere, duela 25 urte inork gutxik espero zuten herrian web garatzaileak edo telefono mugikorretarako aplikazioen garatzaileak izanen lituzkeenik.

Garaiko teknologietara egokitzeko eta arlo berri horietan pertsonak trebatzeko ikuspegiarekin sortu da Dinabide, eralda-



Aintzane Iriberrri azalpenak ematen. Lehen lerroan gobernuko ordezkariak.

keta digitalerako Sakanako espazioa. Aukera berriak sortzeko. Aintzane Iriberrri Berrostegieta, Sakanako Garapen Agentziako (SGA) Industria eta Energia arduradunak azaldu duenez, "proiektuaren xedea da teknologia berriak, prestakuntza eta negozio eredu berriak, enpresen eta bertan lan egiten duten pertsonen eskura jartzea da". Iriberrri argi du enpresa bakoitzak bere digitalizazio maila duela, "beraz, eraldaketa digitala ez da denetan neurri beran eta baliabide bereberekin emanen. Baina

enpresa bakoitzak jakin beharko du bere merkatuan lehiakor izaten jarrai dezan, edo kompetentziaren aurrean indartzeko, zein izan beharko duen bere akzio plana testuinguru honetan".

Hiru oinarri

Iriberrri azaldu digunez, Dinabide proiektuak hiru oinarri ditu. Aurrena, estrategia: "edozein eraldaketa digitala aurre egiteko identifikatuta izan behar duzuna". Hurrena, teknologia da: "teknologia gabe eraldaketa digitalari ezin diogu aurre egin".

Eta atzena, pertsona, langilea: "estrategia eta teknologia bideratuko duena izanen da".

SGAko teknikariak gaztigatu digunez, "gaur egun ez gaude prest teknologiari zuku guztia ateratzeko, teknologia nola ezarri behar den jakiteko, teknologia nola erabili behar dugun ez dakigu, zertarako balio digun... Ez gaude prest". Horregatik, Dinabidek "oinarri garrantzitsuenari", prestakuntzari, erantzunen dio.

Iriberrri azaldu duenez, fabrikatze eransgarrian (3D inprimagailuak-eta) jarri dute fokua. "Garrantzitsua da fabrikazio eransgarria kontzeptu gisa zer den ikastearekin batera, ikustea, probatzea eta makinetan trebatzea. Teknologia horrek zure diseinatze, pentsatze, zure fabrikatze modua nola aldatuko dizun jakitea. Horregatik, pertsonaren prestakuntzan oinarritu da Dinabide, gaitasun berri horiek sustatzeko". Fabrikatze eransgarriaren bidez, besteak beste, plastikozko, polimerozko, metalezko edota egurrezko piezak egin daitezke, fundiziorako hareazko moldeak... "Teknologia horrek ematen duena oso-oso handia da".

Trebakuntza

Fabrikazio eransgarriko trebakuntza garatzeko SGA Goierriko

eta Sakana Lanbide Heziketa institutuekin proiektua garatzen ari da, haien ikasketetan ezagutza hori txertatzeko. Bestetik, SGAk Nafarroako Industria Ingeniarren Elkargoko Ofizialeko Eraldaketa Digitalerako Bulegoarekin hitzarmena du. Haren bidez Irurtzunen ziber-segurtasunari, datu meatzaritzari eta datu analisiari buruzko prestakuntza eskainiko dute aurki. "Enpresendako nahikoa garrantzitsuak eta premiazko gaiak direla ikusi dugulako". Gainera, atzo enpresetako zuzendariak eta arduradunak zuzendutako *Eraldaketa digitala sustatuz* ikastaroa ematen hasi ziren, AINek, SGAk eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatuta. "Hainbat teknologia azalduko zaizkie. Aurreneko kontaktu bat da, sentsibilizazioa pizteko oso egokia dena". Baina Dinabiden beste teknologia batzuek ere izanen dute tokia: errealitate birtuala edo errealitate areagotua (elektrizitate koadroetako informazioa ikusteko, betaurreko birtualekin zer ikus daitekeen...)

Sakanako Sozioekonomia Behatokia markatutako lehentasunei jarraituz, enpresetara zuzendutako proiektuekin hasi dira. Baina Iriberrri gaztigatu duenez, sakandarrei ere zabalduko zaigu, "eraldaketa digitala guztiok jasan beharko dugulako eta jendea laguntzea ere bada helburu".



GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneako albisteak

10:45 Hizketan

11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

"Eraldaketa digitalari ilusioz erantzuteko apustua da"

Pasa den osteguneko aurkezpenean enpresetako eta gobernuko ordezkariekin batera herritarrak izan ziren

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Eraldaketa digitalerako Sakanako espazioa da Dinabide, Irurtzungo Erabidea industrialdean dago, Inasazenaren bulegoan eraikinean. Lehen pausoak beheko solairuan eman ditu, 500 metro karratu hartuz. Solairu hori berritu egin dute bi zati bereziz. Alde batetik, prestakuntzari eta bulegoari eskaintakoa eta, bestetik, Ikerketa eta Garapen proiektuak lantzeko laborategia edo tailerra.

Aitor Larraza Carrera alkateak gogorarazi zuenez, industrialdeari bideragarritasuna emateko

Irurtzungo Udalak, hirigintza onuren truke, Inasako bulego eraikina bereganatu zuen. "2.000 metro karratuko fardel baten jabe egin ginen. Baina Sakanako Garapen Agentziarekin, Nasuvinsarekin eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean fardela zena eskualderako erreferentziazko espazioa bilakatu da". Gaineratu zuenez, Dinabide ez da Sakanara eta Irurtzunerara mugatzen den proiektua. Larrazak gaineratu zuenez, "eraldaketa digitalari erantzuna emateko ilusioz beteriko apustua da".



Eskuko eskanerrarekin piezaren irudia ordenagailura eramaten.

Teknologia berrien aukeren berri izan zen ostegunean. Hirudi 3D enpresako Mikel Arbeloak ekoizpen eransgarriak izan ditzakeen erabilpenen inguruko azalpenak eman zituen eskaner mugikorraz eta 3D inprimagailuz

lagunduta. Arkikuseko Arantxa Satrustegik errealitate birtualak arkitektura eta historia ondareari balioa emateko duen erabilgarritasuna azaldu zuen. Haiek egungo eraikinak duela mende batzuk nolakoak ziren irudikatzen

dute. Azkenik, Sakana Lanbide Heziketa institutuko kanpo erlazioetako arduradun den Patxi Garziak zikloetan sortzen diren proiektuak egiteko makina eransgarriak erakutsi zituen eta teknologia horietan trebatzeko garrantzia nabarmendu zuen.

Aurkezpenean Sakanako makina bat enpresetako ordezkariak, Sakanako Mankomunitateko presidente David Oroz, Ekonomia eta enpresa politikako eta Laneako Zuzendari Nagusi Izaskun Goñi Razkin, Ekonomia Politika Zerbitzuko Zuzendari Carolina Biguria Aldai, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketa Zerbitzuko Zuzendari Esther Monterrubio Ariznabarreta, Sodenako buru Pilar Irigoien, Garalurreko Susana Mendinuetta eta hainbat herritar izan ziren presente.



Erabidea industrialdea izena eman dio udalak

Erabidea izena eman dio Irurtzungo Udalak Inasa zeneko lurretan egin den industrialdeari. Alkateak jakinarazi duenez, "Irurtzungo toponimo bat da. Langileek eta instituzioek garatutako eraketa prozesua islatu nahi duen izen bat jarri nahi genion. 2012az geroztik eman zen aldarrikapen eta lan horren omenez jarri diogu Erabidea izena".

Larrazak gogora ekarri zuen Baikapen bidez Inasa Foil enpresa "arrazoirik gabe" itxi egin zela 2012an. Orduko mobilizazioak gogoratu zituen Larrazak. "Ez ziren alferrik izan. Gaur egun industrialde berria dugu eta % 72 beteta dago, enplegua sortu eta enpresen garapenerako aukera ematen ari dena". 8 enpresa daude momentuz, haietatik 4 berriak. Alkateak jakinarazi zuen industrialdeko sarrerako eraikinean basozainen egoitza berria jarriko dela. "Nasuvinsarekin akordioa itxi dugu eta udalaren eraikina utziko diogu".



NAFARROA

GELDIEZINA!



Ekitaldiak

ALTSASU
maiatzak 11, 19:00etan, loartia plazan.
Bakartxo Ruiz eta Maixabel Lopez de Uralde

IRURTZUN
maiatzak 14, 19:00etan, herriko plazan.
Bakartxo Ruiz eta Aitor Larraza



San Migel festak gazteek abiaraziko dituzte gaur

San Migel eguna bihar ospatuko dute iturmendiarrek, baina gaurtik bada ospakizunik

ITURMENDI

Mikel goiaingeruaren udaberriko ospakizuna maiatzaren 8an, herenegun, ospatu zen. Iturmendiarrek ospakizuna larunbatera atzeratu dute eta udalak egitaraua prestatu du. Baina biharko ospakizunen aurretik, gaur, Iturmendiko Gazte Asanbladak antolatutakoak izanen dira. Gazte erakundearen ekimenez, horrela ospakizunak asteburua hartuko dute. Gazteek, gainera, Aritzaga elkarte hartu dute eta taberna gisa zabalduko dute. Han lortutako dirua Maravillas gazte txarearen husteagatik etor litezkeen isunak ordaintzeko izanen da.



Loreak eta landareak aukeran Olatzagutian domekan

Basoak eta bargak berdetuta, larre batzuetan belar bolak egin da, baratzeak lurra buelta emanda... Udaberria hemen da. Eta harekin eguzki ordu gehiago. Baratzeetan, edo balkoietan, landareak landatu eta etxeetan loreak jartzeko garaia bertan da. Eta langintza horretan laguntzeko Olatzagutiko Udalak 12. Lore eta Landare Azoka antolatu du domekarako. San Migel plazan hamar postu izanen dira 10:30etik 14:30era. Horieta aparte, Sarasate plazan, haurrek lore landaketa tailerlean parte hartzeko aukera izanen dute 11:00etatik 14:00etara. Eguna borobiltzeko, 19:00etan, Haize Berriak bandak kontzertua eskainiko du San Migel plazan.

Plazan egonen diren postuetan, besteak beste, baratzerako landareak, loreak, lore-ontziak, aromaterapiako produktuak, yoga kuxinak, zaku termikoak, zuhaixkak, deshidratatutako haziak eta fruituak erlauntzetako produktuak izanen dira.

OSTIRALA 10

20:00 Kontzentrazioa: Maravillas herriarentzat!
22:30 Bokata-jana.
23:00 Kontzertuak: Embajada eta Sofokaos.

LARUNBATA 11

13:00 Korala, plazan.
13:00 Auzatea, plazan.
18:00 Herriko pilotarien partidak, frontoian.
20:00 Auzatea, plazan.
20:00-22:00 Dantzaldia Gozo-Gozo taldearekin.
22:00 Gazte asanbladak antolatutako afaria, frontoian.
00:00-03:30 Dantzaldia Gozo-Gozo taldearekin.

Nekazarien eguna Arakilen, Arbizon eta Lizarragabengoan

Egiarretan dagoen Itxasperriko ermita, atzera ere, **arakildarren** topaleku izanen da San Isidro egunean, nekazarien egunean, asteazkenean. Ohi bezala, Arakilgo hildakoen aldeko meza izanen da ermitan eguerdian. Behin hura despedituta, apaiza eraikinetik aterako da eta ermita erromanikoaren arkupeetik Arakilgo soro eta larreak bedekatuko ditu. Bedeinkapena despeditu ondoren udalak otamena eskainiko die arakildarrei. Ibarreko biztanleen topaleku izanen da, atzera ere, Itxasperri.

Arbizon nekazarien eta abeltzainen egunean udalak auzatea eskaintzen du. Gauean afariak izanen dira ere. **Lizarragabengoan**, berriz, ospatuko dute San Isidro, asteazkenean, 20:00etan Bordatxo elkartearen herritar guztiendako auzatea izanen da. Garai batean, goizean lan egin ondoren herritarrak arratsaldean auzatean biltzen ziren. Ohitura desagertu egin zen, harik eta 2017an berreskuratu zuten arte.

Sakanako gaztetxokoak



Irurtzun

Jatorria: 2011. urtean zabaldu zen gazte txokoa, 12-15 urte bitarteko gazteei zuzendutako aisialdirako eskaintzan zegoen hutsunea betetzeko.

Kokapena: Gazte txokoa Larraun kaleko lehengo zebakian dago, liburutegiaren ondoan

Egutegia eta ordutegia: Lastailetik maiatzera bitarte zabalitzen da, ostiraletan eta larunbatetan, 17:00etatik 20:00etara eta eskolako opor egunetan 17:00etatik 20:00etara.

Nori zuzenduta: 12 eta 15 urte bitarteko gazteei eskainita dago. Irurtzun eta inguruko herrietako gaztetxoak joaten dira.



Etxarri Aranatz

Jatorria: Gaztetxoendako aisialdirako eskaintzan zegoen aspaldiko hutsunea betetzeko 2015ean sortu zen. Bi zerbitzuen elkarlanetik sortu zen: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen prebentzio programa eta Udaleko Kultur, Kirol eta Gazteria Zerbitzua. Bien artean proiektua aurrera atera zen.

Kokapena: Maisu-maistrena zen eraikinean. Bi eremu eder dauka: jolaslekua eta sukaldea alde batetik eta, bestetik, lasai egotekoa.

Egutegia eta ordutegia: Lastailetik garagarilerara arteko larunbatetan 17:00etatik 21:00etara eta igandeetan 16:30etik 20:30era.

Nori zuzenduta: 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago.



Altsasu

Jatorria: Juan Manuel Herreroen eta Antxon Ramirezen (Gazteria Batzordeko burua) elkarrizketa baten ondoren 1994an udalak gazteria animatzailea kontratatu zuen. Herrero izan zen animatzailea. 2002ko apirilean gazteria teknikari bilakatu zen postua eta Olatz Berastegik hartu zuen ardura 2005eko lastailera arte. Ordutik 2006ko garilarren 16ra arte teknikari postua hutsik egon zen. Hurrengo egunean Blanki Torres hasi zen teknikari lanetan, lanaldi osorik gabe. Urte baten buruan lanaldi osoa izanen du. Gazte txokoa 2007ko lastailan sortu zen. Altsasuko Udalak Gazteria Saila eta harendako aurrekontua ditu.

Kokapena: Hasiera batean Gure Etxea eraikinean zegoen. 2010eko lastailaren 9az geroztik Intxostiapunta eraikinean dago, Gaztegunea (18-30 urte) eta Gazte Informazio Gunearekin batera (12-30 urte).

Egutegia eta ordutegia: Asteleheneetik ostegunera 17:00etatik 21:00etara, ostiraletan eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara eta domeketan eta jai egunetan 17:00etatik 21:00etara. Ekintza bereziak daudenean 17:00etatik 01:00etara.

Nori zuzenduta: 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoei zerbitzua ematen die.



Arbizu

Jatorria: 2016-2017 ikasturtean jarri zen martxan. Udaletik atera zen ideia. Cederna-Garalurren dirulaguntza jaso zuen. 11-14 urteko gaztetxoendako zerbitzu publikorik ez zegoen eta erantzuna emateko sortu zen. Hiru urteko eskarmentua du eta erantzuna "oso positiboa izan da. Geroz eta lan gehiago egiten dugu. Gaztetxoe parte hartzea geroz eta handiagoa da".

Kokapena: Kattuka haur eskolaren azpian.

Egutegia eta ordutegia: Larunbatean eta igandean, 17:00etatik 20:00etara, lastailetik maiatzera.

Nori zuzenduta: 11-14 urteko gaztetxoei.



Olatzagutia

Jatorria: 2018an sortu zen. Bigarren urtea du martxan. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta kultur koordinatzailea elkarlanean abiarazi zuten gazte-txokoa, 12 eta 16 urte arteko gaztetxoendako zegoen eskaintza hutsunea betetzeko. Aurreneko urtea martxa ona izan zenez, dagoeneko udalak proiektu egonkortzat du gaztetxokoa.

Kokapena: Akelarre ludotekan.

Egutegia eta ordutegia: Lastailetik maiatzera zabalitzen ditu ateak, asteburutan. Ostiraletan 18:30etik 21:30era eta larunbatetan eta domeketan 17:00etatik 21:30era.

Nori zuzenduta: 12 eta 16 urte arteko gaztetxoei.

Gazte txokoen topaketa bulkatu dute gaztetxoek

Larunbatean, 17:00etatik aurrera Sakanako Gazte txokoen Topaketa egingen da. Irurtzungo, Arbizuko, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olatzagutiko 11 eta 17 urteko gaztetxoak elkartuko dira

SAKANA

Sakanako Gazte txokoen eguna ospatzeko ideia "Arbizuko gaztetxokoak aurten daukan indarrarekin, eta gaztetxoekin indarrarekin, haiengandik atera da ideia. Sakanako gazte txokoen berri bazuten, baina gertuko herriak kenduta, ez zuten jendea ezagutzen. Eta gazte txokoak elkartzeko egun bat egitea proposatu ziguten, beraien artean denbora partekatzeke". Nahia Urkia Ihabar Arbizuko begiralearen azalpena da. Ideia lur emankorrean hazi da. Hala ere, Urkiak gogorarazi du Altsasun halako zerbait egiteko asmoa bazegoela, baina ibarreko herrietan ez zegoen gazte txokorik.

Mikel Azkargorta Boalek, Olatzagutiko alkateak, "Sakana guztiko gazte txokoen elkarlanaren, hori posible egin duten guztien lanaren eta Sakanako ikuspegiaren" balioa nabarmendu zuen. Azpimarratu zuenez, "elkarlanak plus positibo bat ematen dio, kasu honetan ibarreko gaztetxoak elkar ezagutzeko. Harremanak sortzeko aukera paregabea da larunbateko topaketa". Eta gogorarazi zuen aurretik ere izan direla elkarlan esperientziak: "Kukai dantza taldearen emanaldia den artean antolatzea edo Dan-



Bost gaztetxokoetako ordezkariak izan ziren aurkezpenean.

tzaz oholtzara proiektua ere hainbat udalek elkarlanean martxan jarri gauen".

Antolaketa

Begiraleek ideia egingarria zela ikusi zuten eta hori antolatzen hasteko ate joka hasi ziren. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuaren, Begoña Zestau Baraibarren atea jo zuten lehenik: "gaztetxo adin desberdina dugu herrietan, herrietako errealitatea desberdina da eta gizarte- eta kultur-aniztasuna dugu". Zestau Sakanako hiru

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarri zen, prebentzio programetako arduradunekin hain zuzen. Haien eskutik jaso zuten udal ordezkariak eta gazteria eta kultur teknikariak Sakanako Gazte txoko eguna antolatzeko proposamena.

Idea forma hartzen hasi zen eta bost gazte txokoetako begiraleak eguna sortzeko lanean jarri ziren. Gaztetxoek ere egunaren prestaketan ere parte hartu zuten. Hala ere, Saioa Baztanek argitu duenez, "gazteen nahiak Altsasuko gazte txokoan

ditugun materialekin bateratuta" sortu dute egitaraua. Egingen den ginkanan gaztetxoek lortutako materiala erabiliko da, "dena erositako ez izateko. Haien pixka bat pentsatzeko eta parte hartzeko. Makilekin edo birziklatutako materialekin jolasak sortzeko". Urkiak gaineratu duenez, "ideia gaztetxoetatik sortu da eta haien ardura ere bada bertan esku hartzea. Ikaste prozesu bat da". Horregatik, gaztetxoek eurek arduratu behar izan dute Altsasura joateko garraribidea lortzeaz.

Urkiak azaldu duenez, "espero dezagun luze irautea". Baztanek gaztetxoak "proiektu berri horretan parte hartzea" animatu ditu. Begiraleak gaineratu zuenez, "espero dugu proiektu hau pitteka-pitteka handitzen joatea eta luzarorako izatea".

Topaketako egitaraua

17:00etatik 21:00etara
billar, ping-pong eta futbolin txapelketak. Parte hartzea libre.

Ondoren, Ginkana erraldoia Altsasun barna. Ginkanan argazki lehiaketa izanen da. Eta hainbat jolasekin bateratuko da.

Tailerrak: slime eta dantza. Parte hartzea libre.

Arratsaldean zehar musika egonen da.

Despeditzeko Altsasuko Dj Brianeekin disko-festa eta auzatea.

Gazte txokoa, zer da?

Udalek gaztetxoei eskaintzen dieten zerbitzua da. Gaztetxokoa gaztetxoaren arteko topaketarako espazioa da, aisialdiaz elkarrekin gozatzeko gunea. Han gaztetxoaren gogoko jolasak eta bestelakoak daude. Lagunekin hizketan eroso egoteko txokoa ere izaten dute. Begiraleak izaten dira eta gaztetxoekin batera haien proposamenak bideratzen dituzte. Gaitasunak garatzea, integrazioa eta gozamina bulkatzea eta parte hartzea, nesken eta mutilen arteko harremanak eta tratu onak garatzea, kontsumo arduratsua bulkatzea, dena esparri ziur batean eta heziketa formala ez den arloan. Gazte txokoen bidez gaztetxoaren artean errespetuzko eta berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzen dira. Hainbat balore, hezkuntza proiektu eta prebentzio programa lantzeko bidea ere bada.



Arbizuko Gazte txokokoak. UTZITAKOIA

ARBIZUKO BAXERRI TABERNAK

bi zerbitzari eta sukaldaria behar ditu

Deitu 600 439 246 edo 948 460 737 telefonoetara

BAXERRI ERBETEGERIA

BILTOKI
TABERNA • JETETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astehenetik ostiralera
Eguneko menua 10€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Kaixo
Kafetegia • Jaretxoa

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restauranteikaixo.com

Olga Martínez de Lagrán
PSIKOLOGIAN DOKTOREA

Psikologian doktorea
- Minaren tratamendua
- Antzietatea, depresioa, beldurak
- Masaje psikomozionala

olgamartinezlagran@yahoo.es
639 408 118

Sorgiñak
1988/1990

LAKUNTZA
948 576 357

Maravillasen epaiketa udazkenean egingen da

Atzo egitekoa zen, baina Nafarroako Gobernuak txosten berria aurkeztu zuen eta defentsak hura aztertzeko denbora eskatu ondoren etorri da atzerapena. 22 epaituen artean lau sakandar daude

SAKANA Iruñeko 4. zenbakidun Instrukzio Epaitugian 22 pertsonen kontrako epaiketa egitekoa zen atzo. 22en artean lau sakandar daude. Gaztetxearen agorriaren 17ko husteagatik daude epaituta. Guztiei Iruñeko Nabarria auzoan dagoen Rozalejo Markesaren Jauregiaren okupazioagatik eraikinaren usurpazio delitu arina leporatzen zaie. Auzipetuak zigortuak balira 600 eta 1.800 euro arteko isunei aurre egin beharko liekete.

Nafarroako Gobernuak atzo bertan auzitegian txostena aurkeztu zuen. Auzipetuetako batek azaldu zigunez, "gobernuak nahi

du 22 auzipetuek ordaintzea hustutzea, hura egiteko foruzainek egin zuten operazioa eta eraikinean gobernuak egindako lanak. Erantzukizun zibila leporatu leporatu nahi digu. 1.000 euroko isuna litzatekeena 3.000koa bihurtu daiteke. Guztiena batuta 74.000 eurokoa litzateke".

Gazteen defentsak gobernuak atzo aurkeztutako agiria aztertzeko denbora eskatu du, "defentsagabezia" eta "fede txarra" salatuz, ulertzen baitu nahikoa beta izan zuela txostena aurretik aurkezteko. Epaileak defentsen eskaera aintzat hartu du eta epaiketa lastailean edo azaroan egingen da.

Atzo epaitzekoak ziren lau sakandarrak ez dira Maravillas gaztetxearen husteagatik zigorra jaso dezaketen sakandar bakarrik. Ilbeltzaren 8ko husteagatik protesta egiteagatik errepide mozketa transfeministan parte hartu zuten hiru sakandarrek Mozal Legearen aplikazioagatik isunak jaso ditzakete. Maravillas gaztetxearen bi husteengatik guztira 82 pertsona daude isuna jasotzeko arriskuarekin.

Isunei aurre egiteko hainbat ekimen egiten ari dira. Hurrengo Iturmendiko San Migel festetan izanen da: Aritzaga elkartea hartu dute gazteek eta taberna gisa zabalduko dute.

Udalaren estreinako bisita ofiziala preso etxarriar bati

Silvia Marañon Chasco eta Maria Saez de Albeniz Bregaña Etxarri Aranazko zinegotziek herria eta A Coruñaako Teixeiro espetxea banatzen dituen 650 kilometroak egin zituzten aste-buruan. Helburua han preso dagoen etxarriarra, Luis Mariñelarena Garziandia bisitatzea zen. Marañon eta Saez de Albeniz Mariñelarenarekin bi orduz aurrez aurreko bisita izan zuten, vis a vis delakoa.

Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak Etxarri Aranazko Udalarari onartzen dion aurreneko bisita ofiziala izan da bi zinegotziek Mariñelarenari egin diotena. Kartzelara iristean Teixeiro espetxeko zuzendariak harrera egin zien, baina ez zen zinegotziekin bildu. Hala ere, Mariñelarenaren egoeraz dituzten kezak helarazi zizkieten.

Etxarri Aranazko Udalak herriko gainontzeko preso guztiei bisita ofizialak egiteko eskatuta dauka, baina oraingoz ez dute erantzunik jaso.



Fran Balda Araña erdian. UTZITAKOIA

11-13 auziko auzipetuak prestatzen hasi dira

46 euskal herritar daude sumarioan, tartean, Fran Balda arbizuarra. Irailaren 16an hasiko da epaiketa

ARBIZU

"ETAko espetxe fronteko" kide izatea leporatzen die 11-13 sumarioan auzipetuta dauden euskal herritarrei. Fran Baldarendako fiskaltzak 20,5 urteko espetxe zigorra eskatzen du. Epaiketa irailaren 16tik aurrera izanen da, Espainiako Auzitegi Nazionalean. Balda presoaren eskubideen aldeko Herrira-ren kontrako bi sarekadetan atxilotu zuten.

Epaiketari "aurre egiteko" prestatzen hasi dira auzipetuak. Hortaz, lantaldeetan antolatu dira eta koordinazio bilerak egin dituzte. Hiru ildo markatu dituzte: epaiketa ondo prestatzeko beharrezkoak diren zereginak prestatu (lekukoak, defentsari dagokienak, azpiegiturak, garrarioa...); Epaietak eraginen dien galera ekonomikoa arintzeko moduak aztertu, eta "epaiketa honen bidegabekeria salatu", jasotzen ari diren "elkartasun guztia" antolatu eta epaietaren "oinarrian" dagoen preso eta erbesteratuen egoera "konponitzeko aldarrikatuz" mobilizazioak ere abiatu dituzte. Ekimenen berri Donostian, garagarrilaren 1ean, egingen duten agerraldian emanen dituzte. Auzipetuek "azken asteotan" jaso duten "bertasuna eta hurbiltasuna" esker-tu nahi izan dute ere.

Udalaberriko Tombola

Maiatzaren 13etik 25era

Doako gosariak

Doako pintxoak

Deskontu-txartelak

Tablet eta smartwatch baten zozketa

Saria duen zenbakia sakanakogida eus-en argitaratuko da maiatzaren 28an

Txartelak ezingo dira inoiz diruagatik trukatu eta Ekainaren 30ean balioa galduko dute.

Nafarroako
Gobernua

Gobierno
de Navarra

SAKANAKO
Denda, Ostalaría eta Zerbitzuen Elkartea

LABORAL
KUCGA



Zurumurrueen kontrako ikastaroak antolatu dira aurretik. ARTXIBOA

Zurumurruek nahi ez duzun tokietara eraman ez zaitzaten

Mank-ek ikastaroa antolatu du. Izena emateko azken eguna gaur da: 648 070 710 telefonora hots egin

SAKANA

Zenbait pertsonarekin hizketa-zerakoan, edo entzuterakoan, hainbat talde sozialen inguruan estereotipoak, aurreiritziak eta zurumurruek zabaltzen dituztela jabetzen zara. Hizkera hori iraingarria iruditzen bazaizu eta haserretzen bazaizu, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuak antolatutako ikastaroa zuretzat da. Begoña Zestau teknikariak azaldu duenez, esamesa horiei nola aurre egin erakutsiko dute, "kontzientzia kritikoa piztuko dugu, hainbat talde sozialen inguruan dauden estereotipo, aurreiritzi eta zurumurrueen aurrean".

Zestauk argitu duenez, ikastaroan "zurumurruek desaktibatzekeko estrategien inguruan hitz egingen dugu. Eta gure hizketa-rako gaitasunak hobetzea helburu duten estrategiak ezagutuko ditugu". Jakinarazi duenez, "

egunerokoan entzuten ditugun zurumurruek desmuntatzeko prestakuntza jasoko da modu praktikoan". Ikastaroan lehen-tasuna jatorri anitzeko gizakiekin harreman zuzena duten pertsona edota profesionalak izango dute.

Ikastaroa maiatzaren 17an hasiko da. Hasteko, estrategia komunikatibo eta emozionalak zurumurruek kudeatzeko argibideak emanen ditu Raquel Morenok, soziologian lizentziatua, eta giza parte hartzean espezializatua. Bigarren saioa maiatzaren 23an, ostegunean izanen da. Alde batetik, Zestauk bera kide den ZASKA! Zurumurrueen Kontrako Nafarroako Sarearen berri emanen du. Bestetik, Nafarroako Sos Arrazakeriakok jatorria arrazoi, Nafarroan gertatzen ari diren bazterkeria egoeren eza-gutza eta azterketa praktikoak izanen ditu hizpide.

Bakaikun hasi dira auzolana definitzeko saioak

Bakaikuko Plan Estrategikoan agertutako lehen-tasuneko bati, auzolanari, forma emateko antolatutako aurreneko saioa larunbatean egin zen. Hainbat bakaikuarrek parte hartu zuten saioan, Emun-eko teknikariek gidatutako dinamiken bidez. Bigarren eta azken saioa maiatzaren 18an, larunbatean, 17:00etan izanen da.



Zaborra biltzen. ZABALARTE

Zikinkeriaz jabetu. Baso zikinaz eta sortutako zaborraz

Zabalarate mendi elkarteko kideek eta makina bat lakuntzarrek igande goiza beheko basoan eman zuten. Hura garbitzen. Zikinkeria pilatuta zegoela jabetuta, basoa garbitu eta sortzen ditugun hondakinen kontzientzia hartzeko saioa izan zen igandekoa. Goiza basoan emanda udalaren kamioia zaborrekin beteta bueltatu ziren. Hura plazan ikusgai jarri zuten.

Altsasun etxerako egur lotea eskatzeko epea zabalik

Altsasuko Udalak etxerako egur lotea eskuratzeko eskaera epea gaur despeditzen da. 150 egur lote eskatzaileen artean egindako zozketa bidez banatuko ditu udalak. 20 euro pagatu beharko dira. Familia unitate bakoitzak lote bakarria eskatzeko aukera izanen du. Egur loteak Usolarrain, Martinzazpi eta Baso Itxia dermioetan daude markatuta.

Negurako bost udaltzain lanean izanen dira

Deialdira aurkeztutako bost hautagaiek probak gainditu dituzte eta Segurtasun Eskolan ikastaroa egingen dute

ALTSASU

Altsasuko Udalak abenduan udaltzain bat kontratatzeke deialdia egin zuen. Hara aurkeztutako hautagai guztiek gainditu dituzte proba guztiak eta udaltzain izateko azken pausoa astelehenan emanen dute: Nafarroako Segurtasun Eskolan ikastaroa hasi. Hura despedituta, abenduan, Altsasuko Udalak bost udaltzain berri izanen ditu. Eta haiei gaur egun dauden bi laguntzaileak gehitu behar zaie. Javier Ollo alkateak jakinarazi duenez, asmoa da 2020an beste bi udaltzain plaza betetzeko deialdia egitea.

Alkateak gogorarazi duenez, 2018ko abenduan egindako deialdiarekin plaza bat bete nahi zuten, baina deialdian bertan beste udaltzain plaza bat betetzeko aukera aipatzen zen. Lan deialdia egin den bitartean, udalak Nafarroako Gobernuaren bidez



Udaltzainen autoa. ARTXIBOA

2014an egindako lan deialdiaren emaitza jakin zen: oposizioa egiteko probara ez zen inor aurkeztu. Udalak orduan gobernura jo zuen martxan zen oposizioan aurkeztu eta gainditzeko zuten hautagai guztiak udaltzain bihurtzeko..

Udalak bi sorosle kontratatu nahi ditu

Uharte Arakilgo Udalak bando bidez jakinarazi du langabezia dauden bi pertsona kontratatu nahi dituela Itxesia auzoan dauden igerilekuetan sorosle lana egiteko. Lanpostuetan interesa duten pertsonak Altsasuko enplegu bulegoan eman behar dute izena. Epea gaur bertan despeditzen da, 14:00ak baino lehen pasa beharko dute.

Arbizuarrek egur lotea eskatzeko epea zabalik dute

Etxerako egur lotea eskatzeko interesa duten arbizuarrek maiatzaren 22ra arteko epea dute. Arbizuko Udalak jakinarazi duenez, udaletxeko bulegoan egin behar da egur lotea eskuratzeko eskaera. Horretarako, aste-gunetan, bulego ordutegian pasa behar da herriaren etxetik. Interesatuak 35 euro ordaindu beharko dituzte lote bakoitzeko.

OPAZANK!

Sakanako euskalkien
BIDEO LEHIAKETA



Nola parte hartu?

- Egin bideo labur bat taldeka Sakanako euskalkien erabiliz!
- 5 minutu gubikenez eta 10 gehenez.
- Gala librean izango da.
- Bideoak euskaraz@sakana-mank.eus helbidera bidali maiatzaren 30a baino lehen.

Sariak

1. Erosketa bala Sakanako dendetan gastatzeko (400€)
2. 8 lagunentzako afaria

Eta parte-hartzaileen artean bideo-kamera bat zozkatuko da!



Oinarri guztiak www.sakana-mank.eus webgunean.





Hirugarren urtea da elkarteak Udaberriko Tonbola antolatzen duena.

Dendetatik erosketarekin eta sariarekin atera zaitezke

Udaberriko Tonbola antolatu du Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak astelehenetik aurrera

SAKANA

Egunerokoan bere erosketak egiteko herriko dendak eta establezimenduak aukeratzen dituzten bezeroak saritu asmoa du Udaberriko Tonbolak. Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak sustatzen du eta Lakuntza, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiko 57 denda eta ostalaritza establezimenduk parte hartuko dute. Maiatzeko hurrengo bi asteetan haietan erosketak egiten duten bezeroek tonbolako txartela jasoko dute. Hura zabaldu eta txartel saritua bada, bezeroak momentuan jasoko du saria.

Astelehenetik maiatzaren 25era arte 939 sari banatuko ditu Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak bere bezeroen artean. Lortu daitezkeen sarien artean daude Akeita kafetegian gosariak, ardo botilak, Etxarri Aranzako Leku Ona eta

Derry eta Altsasuko Xume, Lezea eta Gautxori tabernetan pintxoak eta 5 euroko balioa duten erosketak txartelak (garagarrilaren 30era arte erabil daitezkeenak).

Zorterik ez duten eta zuzeneko saririk jasotzen ez duten bezeroek txartelak gordetzeko aukera dute Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak bigarren aukera bat emanen baitie. Sariarik ez duten txartelek zerbakiak dute eta horiek Xagu Informatika dendako tablet eta smartwacht banaren zozketarako baliagarriak izanen dira. Elkartetik jakinarazi dutenez, zerbaki sarituaren berri www.sakanakogida.eus web orriaren bidez emanen dute hilaren 28an.

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak Udaberriko Tonbola antolatu ahal izateko Nafarroako Gobernuaren eta Euskadiko Kutzaren laguntza jaso du.



Euskal festa eta artisau azoka

Asteburu bete eskaintza izan zen aurrekoa Altsasun. Alde batetik, gazte asanbladak antolatutako Alde Zaharreko Euskal Festa ospatu zen larunbatean. Herri bazkarian sukaldari lanean aritzen direnei egin zieten aitorza. Domekan artisauak Foru plazaz jabetu ziren. Arratsaldean, berriz, musika eta dantza eskolaren emanaldiak jendetza erakarri zuen.



Dilin-dalan

Hilaren 3a, maiatzeko gurutzeta. Egun seinalatua da Altsasun. Ezkila errepika hasten den eguna da. Aurreneko ezkilan kontzertua Asier Beramendik, Jesus Bengoetxeak, Belen Rubiok, Jesus Irisarrik eta Enrike Zelaiak eman zuten. 20 minutuko errepika izan zen. Irailaren 14a bitartean eguerdiro entzuten direnak, ordea, 5 bat minutukoak izanen dira.

AHTren kontrako manifestaziora autobusez?

Hilaren 18rako deitu dute mobilizazioa, gasteizen Autobusa 11:00etan aterako da

SAKANA

Sakana Trenaren Alde, AHTrik ez! plataformak Gasteizen hilaren 18an egingen den manifestaziorarekin bat egin eta sakandarrak hartan parte hartzea deitu du. Arabako Abiadura Handiko Trenaren kontrako plataformek deitutako mobilizazio horretan egungo tren zerbitzua hobetzearen alde eta Abiadura Handiko Tren egitasmoaren kontra egingen da. Joan-etorria errazteko plataformak autobusa antolatu du, 11:00etan Irurtzundik abiatu eta herriz herri pasako dena Gasteizera joateko. Garraio publikoan manifestaziora joan nahi dutenek ohiko tokietan eman dezakete izena hilaren 16ra arte.

Manifestazioaren ondoren, Gasteizen Abiadura Handiko Trenaren kontrako gunea antolatu dute Arabako plataformek. 14:30etik aurrera herri bazkaria, haurrentako gunea eta kontzertuak izanen dira. Sakandarren batek ere parte hartuko du. Bazkarian izena eman nahi dutenek 649 092 105 edo 616 013 776 telefonoetara hots egin dezakete asteazkena baino lehen (helduek 15 euro, haurrek 7). Guneko egitaraua despeditu ondoren, 20:30ean, bueltako autobusa aterako da.

Ospak 142 kontrol zenbatu ditu lehen hiru hilabeteetan

Ospa mugimenduak jakinarazi duenez, lehen hiru hilabeteetan 142 kontrol zenbatu ditu Altsasun. Ilbeltzetik martxo bukaerara arte Ospako kideek zenbatutako kontrolatik 88, % 61,97, Foruzangoak jarri zituen. Gainontzeko 54 kontrolak, % 38,02, Guardia Civilarenak dira. Ospak "erreprezio indar guztiak" alde egiteko eskatu du atzera ere.

Albi gazta 4. Idiazabalaren

Euskal Herriko Artzainek egindako gazta sustatzeko helburuz, Euskal Gaztaren Azoka izan zen Idiazabalaren atzo. Eta harekin batera Idiazabalgo Gazta Txapelketa Herrikoia jokatu zen, jendearen botoekin ebatzi zena. Idiazabalgo Jesus Aranburu artzainak egindako gaztak irabazi zuen. Arruazuko Albi gaztandegiko gaztak laugarren postua lortu zuen.



GOIERRIKO HITZA

IRURTZUN TXAPELKETA

XXVII. IRURTZUN-ARAKIL: EMAITZAK
Aizkorbe-Santamaria / Senar-Markaida

8-22

Arizmendi-Insauti / Ugalde-Azpiroz-

12-22

EMAKUMEEN D. NAGORE: EMAITZAK
Aldaregia / Agirre

5-18

Olatz R. de Larramendi / Elizalde

18-10

XXVII. IRURTZUN-ARAKIL: PARTIDAK

OSTIRALEAN, ETXARRENEN, 19:00

Espinal-Aldabe / Uribe-Balardi

OSTIRALEAN, IRURTZUNEN, 19:30

Olló-Arbizu / Adonis-Aranguren

Ojuel-Azanza / Barbajero-Aldutzin

LARUNBATEAN, IRURTZUNEN, 10:00

Villanueva-Agirre / Bastarrika-**Exeberria****Orbegozo-Zurdo de Baños / Aranburu-****lñarra****EMAKUMEEN D. NAGORE: PARTIDAK**

OSTIRALEAN, ETXARRENEN, 19:00

Agirre / Elizalde

Irurtzun-Arakilgo bi pilota**torneoetan 6 partida jokoan**

Asteburuan Irurtzun eta Arakilen jokatzeko ari diren bi pilota torneoetako partidak egonen dira jokoan. Batetik, gizonezkoen XXVII. Irurtzungo eta Arakilgo Pilota Txapelketako jardunaldia jokatu da, eta, bestetik, aurten estreinakoz jokatzeko ari den I. Emakumezkoen Domingo Nagore Memorialeko jardunaldia, guztira 6 partida, ostiral arratsaldean Irurtzunen eta Etxarrenen eta Larunbatean Irurtzunen. Txapelketako finalak Irurtzungo Trinitateko festetan jokatu dira.

Ezkurdiak Urruti du aurkari finalerdietan

PILOTA Buruz Buruko lehen finalerdia larunbatean jokatu dute Joseba Ezkurdiak eta Mikel Urrutikoetxeak Bilbon (17:00, ETB1). Beste finalerdian Danel Elezkano eta Iker Irribarria lehiatu dira Eibarren. Inoizko banakako irekiena da aurtengoa

Joseba Ezkurdiak da Buruz Burukoan bizirik dirauen pilotari nafar bakarra. Finalerdietan dauden beste hiru pilotarietatik bi bizkaitarrak dira, Zarataoko Mikel Urrutikoetxea eta Danel Elezkano, eta hirugarrena gipuzkoarra, Aramako Iker Irribarria. Laurek asko dute jokoan asteburuan: ekainaren 2an Bilboko Bizkaia pilotalekuan jokatu den Buruz Buruko finalean egotea. Beraz, beste asteburu pilotazale erakargarri baten aurrean gaude. Buruz burukoaren aurkezpenean esan zena berretsi du txapelketak: inoiz baino irekiago izaten ari da, ez dago faborito argirik.

Laurak aukerekin

Joseba Ezkurdiak Mikel Urrutikoetxeak izango du aurkari larunbatean Bilboko Bizkaia pilotalekuan (17:00, ETB1).

Ezkurdiak larunbatean Labriten Erik Jaka arerio arriskutsuari 22 eta 14 irabaztetik dator. Ez-



Joseba Ezkurdiak. ARTXIBOA

ez zuen partida galdutzat eman, eta tarteka Ezkurdiari gerturatu zitzaion (14 eta 10 eta 17 eta 13). Tarte horietan Erik Jakak gorriak pasarazi zizkion Ezkurdiari, baina une horietan ongi eusten eta sufritzen jakin zuen arbizuarra eta finalerdietara pasatzea lortu zuen. "Banekien sufrituko nuela. Sakearekin min handia egiten du Erikek, takada handiak egin dizkit eta nire burua sufritzen ikusi dut. Hortaz, irabaztearekin pozik" azaldu zuen partida bukaeran.

Mikel Urrutikoetxeak, bestalde, bere bertsiorik onena erakutsi zuen igandean Bilbon eta Oinatz Bengoetxea 8 tantotan

utzi zuen. Bizkaitarra azken sei Buruz Burukoetako bostetan finalerdietarako sailkatu da, eta nahiz eta azkenaldian lesioekin arazoak izan, oso kontuan hartzekoa da. Joseba Ezkurdiak badaki partida oso ona egin beharko duela Urrutikoetxeak gaunditzeko eta lehia bizia espero da larunbatean Bizkaia pilotalekuan.

Beste finalerdian Irribarria eta Elezkano II.a lehiatu dira, igandean, 17:00etan, Eibarko Astelenan (ETB1). Kasu honetan ere partida oso estua aurreikusiten da, bi pilotariak sekulako maila eman baitute orain arte.

Nafarroa GRABNIko ezker paretako frontoiko txapeladuna

Asteburuan Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko pilota selekzioek jokatzeko GRABNI txapelketako finalak jokatu ziren. Nafarroako selekzioa ezker paretako frontoiko txapeladuna izan zen, jokatu zituen 21 finaletatik 12 irabazi eta gero. Trinketeko txapelketa Iparraldeko selekzioak irabazi zuen, 7 final irabazita, eta Nafarroa bigarrena izan zen.

kurdiak aldea atera zuen hasieratik, Lizartzakoaren akatsak aprobetxatuz. Izan ere, Jakak akats asko egin zituen, guztira 10 akats garbi, tartean bost txapa eta saketik egindako bi falta. Eta horiek gehiegi dira. Hala ere,



ALTSASUKO GAZTE ASANBLADA

Altsasuko txapeldunak

PILOTA Frontoia beteta zela eta giro bikainarekin, txaranga eta guzti, jokatu ziren Altsasuko Gazte Asanbladak eta Pilotajaukuk antolatutako V. Pilota Goxua Txapelketako finalak. 2. mailan Lizarragak eta Iragik 18 eta 9 irabazi zieten leregitarrei, banakakoan

Senarrek 12 tantotan utzi zuen Mitxaus, nesketan Berastegik eta Igoak 18 eta 10 hartu zituzten mendean Zabala eta Mazkianan eta 1. mailan Mazkianan eta Alustizak 18 eta 16 gailendu ziren Lopez de Zubiria eta Garziandiaren aurrean. Sari ematean Martija izan zen.



Txapeldunak, entrenatzaileekin. UTZITAKOIA

Baztarrika, Lakuntza eta Gorrotxategi txapeldun

PILOTA Aldabideko pilotariak txapelak ekarri dituzte Tafallatik eta Elizondotik

Asteburuan makina bat pilota txapelketa jokatu dira. Tartean, larunbatean Tafallako Udaberri Txapelketako finalak jokatu ziren, eta Arbizuko Aldabide klubeko Hasier Baztarrika eta Xabier Lakuntza haurren mailako txapeldunak izan ziren, finalean Irurtzun klubeko Imaz eta Makina mendean hartu eta gero.

Bi txapel jarraian

Hurrengo egunean, igandean, Aldabideko Baztarrikak eta Lakuntzak Elizondoko Udaberriko Txapelketako finalak jokatu zituzten eta beste txapela bat ekarri zuten Sakanara, haurren mailako finalean Burlatako Urmeneta eta Salcedo 5 tantotan utzi eta gero. Txapelketa horretan beste txapela bat lortu zuen Aldabide klubeko Ioritz Gorrotxategik. Larraun klubeko Oinatz Iriartekin bikoa osatu eta kadeteen mailako finalean 18 eta 6 irabazi zieten Beasain-Azpeitia klubetako Olanori eta Labakari. Poz bikoitza Aldabiderendako.

Entrenatzaileei eskerrak

Txapeldunak, pozik, euren entrenatzaile Lino Arrutiri eta Jose Mari Berastegiri eskerrak eman nahi dizkiete, pilota sustatzeko eta pilotariak trebatzeko egiten duten lanagatik.

Iskizakoen podiuma Nafarroako Taldekakoan

GIMNASIA ERRITMIKOA Leporaino beteta zegoen Zelandi kiroldegian jokatu zen Nafarroako Taldekako Gimnasia Erritmikoko 2. fasea. 17 klubetako 50 taldetan, 250 gimnasta guztira, tartean Iskiza Sanakako bi talde

Altsasuko Zelandi kiroldegia txiki geratu zen larunbatean, Nafarroako Taldekako Gimnasia Erritmikoko Txapelketako 2. fasea ikustera hurbildu zen jendetza hartzeko. Izan ere, ez zen edonolako ikuskizuna: Nafarroako punta-puntako gimnastak aritu ziren, Nafarroako 17 klubetako 50 talde, 250 gimnasta baino gehiago guztira. Eta tartean Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko klubeko bi talde zeuden.

Iskiza Sakanako monitorea Olaia Agirrek aipatu digunez, oso maila altua egon zen. "Helburua Iskizako bi taldeek lan ona egitea zen, ikasturte guztia baitaramagu txapelketa prestatzen, eta lortu genuen. Lan ona egin zuten". Pilota, mazak, zinta, uztaia, soka... aparatu guztiekin aritu ziren gimnastak, baina txikienak esku libretan aritu ziren, aparatuek gabe. Zelandi betetzen zutenek puntako koreografia ikusgarriak ikusteko aukera izan zuten. Eguesibarko Alaia eta Lagunak klu-



Iskizakoak Nafarroako Taldekako Txapelketako podiumeko bigarren kajoian. ISKIZA

bekoak ziren faboritoak, baina gainontzeko klubetako gimnastek ere -Iskiza Sakana, Barañain, Antsoain, Tafalla, Tuteria, Funes, Club Natación Pamplona, Larraona, Uharte, Shogun, Ibaialde, Mendialdea, Arrotxapea,

Txantrea eta Anaitasuna- lan bikaina egin zuten.

Haurren 3. mailan, Iskiza bigarrena

Iskiza Sakanako kimuen mailako taldea Nafarroako Taldekako

Txapelketako 4. mailan lehiatzen da eta "oso ongi" aritu zirela nabarmendu du Agirrek. "Lan oso txukuna egin zuten gure gimnastek eta guztiak poz-pozik zeuden". Haurren mailan podiumera igo ziren Iskizakoak. Nafarroako Taldekako Txapelketako 3. mailan lehiatzen dira Iskizakoak eta bigarrenak sailkatu ziren, primerako lana egin eta gero. "Ekainaren leian jokatu da Nafarroako Taldekako Txapelketako 3. fasea, Berriozarren, eta lan txukuna egiten badugu 3. mailari eutsiko diogu" gaineratu zuen Agirrek.

Antolakuntza lanetan ere ibili behar izan zuten Iskizakoek. "Nafarroako Federazioak antolatzen du txapelketa, baina bertako klubak beti lagundu behar du eta lan asko izan genuen. Horretaz gain, barra bat jarri genuen, ikusleek jan-edateko zerbait eskura izateko, Zelanditik gertu ez baitago tabernarik" aipatu zigun Olaia Agirrek.

Ikasturte bukaerako festa, ekainaren 14an Altsasan

Ekainaren 1eko Nafarroako Taldekako Gimnasia Erritmikoko Txapelketako 3. fasea prestatzen jarraituko dute Iskizakoek. "Lanean jarraitu beharra dago, akatsak zuzendu eta, ahal bada, hobetzeko" dio Agirrek. Bestalde, ikasturte bukaerako Altsasuko jaialdia prestatuko dute. Ekainaren 14an izanen da, ostiralarekin, 19:30ean Iortian.

Sakanako Herri Kirol Eguna bikaina Arruazun

HERRI KIROLAK Aizkolariak, harri jasotzaileak eta trontzalariak aritu ziren lanean

Sakanako Mankomunitateak antolatuta, igandean Arruazun hartu zuen aurtengo Sakanako Herri Kirol Eguna. Eguna ederra eta giro polita izan zen Arruazuko plazan, Sakanako herri kirolarien festa dena.

Kirolari guztiek talde argazkia egin zuten eta berehala hasi zen herri kirol erakustaldia. Sakanako Harri Jasotze eskola eta zentro teknikoan Mikel Lasarterekin dabilzan 3 harri jasotzaileek mustu zuten eguna. Saio guztian barna aizkolariarekin eta trontzalariarekin txandakatuz,

erakustaldi polita egin zuten harri desberdinekin.

Segidan Sakana Aizkora Eskolan Juanito eta Migel Angel Erdoziarekin trebatzen diren aizkolari gazteak hasi ziren lanean. Banaka eta binaka aritu ziren, eta aizkora gustuko dutela, hori nabaritu zitzaion etorkizuneko aizkolariari. Mutilak ziren gehienak, Iraide Vergara izan ezik. Trontzalarien txanda izan zen ondoren. Andra Mari ikastolako bikote batek eta Iñigo Aritzako beste batek erakustaldi ederra egin zuten.



Erakustaldia baino lehen talde argazkia atera zuten herri kirolariak.

Zortzi aizkolarien txanda izan zen ondoren. Arkaitz Jauregi, Eloy Corchero, Juanjo Erdozia, Goizeder Beltza, Jaime eta Iker Gorriti aita-emeak, Juanjo Lopez eta Angel Eraso aizkolariak binaka egin zuten erakustaldia.

Eta, bukaeran, Mikel Lasarterk motozerrarekin erakustaldia egin zuen: txakur baten irudia egin zuen enbor batean. Festa borobiltzeko, herri kirolariak bazkari ederraz gozatu zuten Arruazuko elkarteetan.



Iratxe Lapuente eta Maitane Igoa Espainiako Pistako Txapelketan. SAKANA PATIN

Lapuentek zilarrezko domina eta Igoak lan bikaina Valentzian

IRISTAKETA Haurren Espainiako Pistako Txapelketan maila bikaina eman dute irristalari sakandarrek

Asteburuan Valentziako Paiportako Udaleko patinodromoan haurren eta gazteen mailako Espainiako Pista Txapelketak eta kimuen mailako Kopa jokatu dira. Bertan Lagunak taldean dabilizan bi irristalari sakandar aritu ziren, Iratxe Lapuente Perez ziordiarra eta Maitane Igoa Lopez de Agileta etxarriarra, biak haurren mailakoak.

Haurren emakumezkoen mailako 74 irristalarien artean lan bikaina egin zuten sakandarrek. Maitane Igoa 6.a sailkatu zen 500 m sprintean; 10.a izan zen 5.000 m kanporaketan; 14.a izan zen 200 m erlojupekoan eta 34.a 3.000 puntutan. Finean, txapelketako sailkapen orokorrean 12. postua lortu zuen eta Nafarroako bigarren irristalari onena izan zen. Eta Iratxe Lapuente bigarrena sailkatu zen 500 m esprintean eta zilarrezko domina jaso zuen; bosgarrena izan zen 200 m erlo-

jupekoan, 24.a sailkatu zen 5.000 m kanporaketan eta 27.a 3.000 puntutan. Txapelketako sailkapen orokorrean 9.a sailkatu zen eta irristalari nafar onena izan zen haurren mailan.

Bestalde, maiatzaren lein Txantrea Trofeoa jokatu zen eta Asier Agirre Aldaz olaztiarra hirugarrena sailkatu zen aurrebenjaminen gizonetzkoen mailan. Tamalez, Ioseba Fernandezek ez zuen munduko abiadazko bueltako errekorra gainditzea lortu, 14,369 segundoko lana egin eta gero.

Asteburuan Nafarroako Zirkuitu Txapelketa Antoniuttin

Larunbatean eta igandean Nafarroako Zirkuitu Txapelketa jokatu da berri den Antoniuttiko Zirkuituan, kimuen kategoriatik hasita seniorretaraino. Han ariko dira gure irristalari sakandarrek.

Bargagainen 14 dominak Nafarroako Txapelketan

TAEKWONDOA Talde sakandarreko taekwondistek maila bikaina eman zuten Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria zen Nafarroako Taekwondo Txapelketako finaleran: banaka 10 domina lortu zituzten eta taldeka Bargagainek 4 domina ekarri zituen Sakanara

Nafarroako Kirol Jolasetako Nafarroako Taekwondo Txapelketako finalak apirilaren 13an jokatu ziren Arrosadian. Bertan lan bikaina egin zuten Sakanako Bargagain Taekwondo taldeko kirolariek. Bargagaingo klubetik 13 taekwondista aritu ziren eta emaitza paregabeak lortu zituzten: taekwondistek 10 domina jaso zituzten, eta klub moduan taldeka 4 domina lortu zituen Bargagainek. Hortaz, Nafar Kirol Jolasetako 14 domina etorri dira Sakanara.

Lortutako dominak

Emaitzen errebasoa eginez, kategoriaka, emakumezkoen junior mailako pisu arinean Irati Irigoien Crespok urrea lortu zuen eta Ane Gil Aldasorok brontzea. Eta taldekako sailkapenean zilarrezko domina lortu zuten Bargagaingo emakumezko juniorrek.

Gizonezkoen junior mailan Mohamed Essobaik zilarrezko domina lortu zuen eulia pisuan.

Haurren mailan, emakumezkoen oilar pisuan Leire Etxaniz Claverrek urrezko domina lortu zuen, pisu arinean Rania Mabchourdek urrea eta Alae Hassadi Boutabik zilarra eta pisu ertainean Asmaa Haiyatik urrea. Aipatzekoa da, Gizonezkoen hau-



Nafarroako Txapelketako finaleran aritu ziren gazteak, trofeoekin. BARGAGAIN

rren mailan minieulia mailan Joseba San Migelek urrea jaso zuela eta Hugo Rodriguez Arealek zilarra. Haurren mailan, taldekako txapelketan, Bargagain klubeko emakumezkoek urrea lortu zuten eta Bargagain klubeko gizonetako brontzea.

ORAINDIK EZ DA DENBORALDIA BUKATU BAINA BARGAGAIN KLUBEKO LORPENAK IKUSGARRIAK DIRA

Teknikan urrea eta zilarra

Taekwondoko teknikari dago-kionez, gizonetzkoen kadete mailako Aaron Rodriguez Arealek lan ezin hobea egin zuen: urrea lortu zuen teknikan eta Bargagain Klubak zilarrezko domina lortu zuen taldekako teknika sailkapenean.

Urtean zehar Gerardo Moreno irakaslearekin klasean egindako lanak emaitza ikusgarriak lortu ditu eta oso kontentu daude Bargagainen. Ia ikasturte bukaeran gauden honetan, denboraldiko balorazioa bikaina da

SASKIBALOIA CBASK ligako zazpigarren postua lortzera

Autonomia Arteko 2. mailako 2. fasea bukatzeaz dago. Altsasuko CBASK saskibaloitza taldeak 7. eta 8. postua erabakitzekeo partida jokatu du Larraona A taldearen kontra bihar, larunbatean, maiatzaren 11n, Altsasuko Zelandi kiroldegian (18:00). Ea irabazi eta liga 7. postuan despeditzea lortzen duten saskibaloitza jokalariek altsasuarekin.

June Kintanaren urrezko domina Unibertsitateen Artekoan

DISKO JAURTIKETA Bakaikuarrak 54,99 metroko jaurtiketa egin zuen eta txapelduna izan zen

Asteburuan Espainiako Unibertsitateen Arteko Atletismo Txapelketak jokatu ziren Castellonen. June Kintana disko jaurtitzaila bakaikuarra Leongo Unibertsitatearekin lehiatu zen eta primerako lana egin zuen: urrezko

domina lortu zuen, kilo bateko pisua zuen diskoa 54,99 metrora jaurti eta gero. Bigarrena Valentziako Unibertsitateko Arev Sargsyan izan zen (47,23 m) eta hirugarrena Alacanteko Paula Ferrandiz (46,90 m).



June Kintana Miren Bartolomerekin. PAMPLONA ATLETICO

Osasuna Magna Xota, play-offei ekitera

ARETO FUTBOLA Lehen Mailako titulua erabakitzeko play-offak asteburuan hasiko dira. Final laurdenetan Osasuna Magnak Jaen du aurkari, 3 partidetara, eta lehen partida bihar, larunbatean, 18:30ean jokatuko dute Jaenen

Apirilaren azken asteburuan despeditu zen Areto Futboleko Lehen Mailako liga erregularra. Liga horretan lehen zortzi postutan sailkatu ziren taldeek jokatuko dute ligako titulua erabakiko duten play-offetan: Barça Lassa, El Pozo Murcia, Osasuna Magna Xota, Movistar Inter, Palma Futsal, Jaen Paraiso Interior, Aspil Vidal Ribera Navarra eta Levante. Play-offetako final laurdenak maiatzaren 11tik 19ra jokatuko dira, hiru partidetara. Finalerdiak maiatzaren 25etik ekainaren 3ra jokatuko dira, formatu berberarekin, eta finala 5 partidatara jokatuko da, ekainaren 8tik 22ra.

Hortaz, asteburu honetan play-offetako final laurdenetako lehenengo partida jokatuko da. Imanol Arregiren taldea hirugarrena sailkatu zen liga erregularrean (59 puntu, 17 garaipena, 8 berdinketa eta 5 porrot), eta postu horri esker, Jaen Paraiso Interior taldearen kontra play-offetako final laurdenetan kantxa faktorea alde izango du. Hortaz, lehen partida Jaengo La Salobreja pabilioian jokatuko da larunbatean, maiatzaren 11n, 18:30ean, eta bigarren partida eta berdinketa egonez gero, hirugarrena, talde berdearen etxean, Iruñeko Anaitasuna pabilioian jokatuko dira.



Play-offak jokatuko irrikitan daude Osasuna Magnako jokalariek. XOTA

"Jaen arerio gogorra da, baina egia esan, edozeinek irabazi ditzake play-offak" adierazi du Imanolek. Partida behar bezala prestatzen dabilta egunotan jokalaria berdeak, eta play-offetan ahalik eta urrunera iristea da helburua.

Sarrerak

Osasuna Magnak eta Jaenek maiatzaren 17an 20:00etan Anaitasunan jokatuko duten partidarako sarrerak maiatzaren 15ean jarriko dira salgai. Norvegiagoka ez dago abonoetan jasoa eta,

hortaz, abonatu eta bazkideek euren sarrera erosi beharko dute, prezio merkeagoan. Sarrerak salgai egongo dira Osasuna Magnako Iruñeko bulegoan baina baita Irurtzunen ere. Abonatuak eta babesleak maiatzaren 15ean erosi ahaliko dute sarrera, Irurtzunen, 18:00etatik 20:00etara, eta gainontzekoek ostegunean, 18:00etatik 20:00etara. Eta berdinketa hausteko hirugarren partida jokatzea beharrezkoa bada, Irurtzuno bulegoan maiatzaren 18an erosi ahaliko dira sarrerak, 11:00etatik 13:00etara.

Andra Mari ikastolako soka tiratzaileak lanera

SOKATIRA Kadeteen Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketan parte hartuko dute

Asteburu honetan hasiko da Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Nafarroako Kadeteen mailako 4x4 Sokatira Txapelketa (280 kg). Guztira 7 taldek hartuko dute parte, tartean Etxarri Aranazko Andra Mari ikas-

tolatik sortutako hiru taldek: Andra Mari A, Andra Mari B eta Andra Mari C. Haiekin batera Araxes, Berriozar eta Antsoain A eta Antsoain B ariko dira.

Kadeteen mailako Nafarroako Txapelketan hiru jardunaldi jo-

katuko dira guztira, liga sistema bidez. Hiru jardunaldiko denborak batu ondoren, lehen bi sailkatuek jokatuko dute final handia, hirugarren jardunaldia bukatu ondoren.

Hiru jardunaldi

Txapelketako lehen jardunaldia Doneztebeko frontoian jokatuko da larunbatean, 17:00etatik aurrera, bigarrena maiatzaren 18an, Antsoainen eta hirugarrena eta finala maiatzaren 25ean, Berriozarko Eguzki plazan.

SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUEN PARTIDUAK

IGANDEAN ALTSASUN

09:00 Urdiain - Tipi Tapa

10:00 Etxarri Aranatz 1 - Lagun Artea 07

10:00 Etxarri Aranatz A - Lagun Artea 08

BENJAMINEN PARTIDUAK

IGANDEAN ALTSASUN

11:00 Aralar Mendi - Altsasu A

11:00 Altsasu B - Urdiain

12:00 Altsasu C - Etxarri A

12:00 Sutegi - Etxarri 1

Sakanako Futbol Topaketak etzi despedituko dira, Dantzalekun

Sakanako Mankomunitateak Sakanako Futbol Topaketak antolatzen ditu, Sakanako futbol taldeen laguntzarekin, futbola sustatu eta neska-mutiko txikienei txapelketa batean parte hartzea ahalbidertzeko. Baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik eginen. Sakanako beste herrietako neska-mutikoekin futboleko arituz ongi pasatzea da asmoa, euren arteko harremana sustatzea.

Diplomak eta auzatea

Esan bezala, aurtengo topaketetako azken jarduna jokatuko da igandean Dantzalekun. Kimuen mailako partidak jokatuko dira lehenengo, goizeko 9:00etan hasita. Guztira 3 partida jokatuko dira. Ondoren, goizeko 11:00etatik aurrera, benjaminen mailako txanda izango da. Kasu honetan 4 partida jokatuko dira guztira. Bukatzerakoan, 13:15ean, topaketetan parte hartu dutenei diplomak banatuko dizkie antolakuntzak eta neska-mutiko guztiendako auzatea izango da.

ELOMENDI TXAPELKETA.

25. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Unziti - Zaldua 2-4

SAILKAPENA

ELOMENDI KO FUTBOL TXAPELKETA

1 Elomendi 51

4 Zaldua 44

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Zaldua - Bidezarrak (Lekunberrin)

Zaldua laugarrena

Asteburuan Arakilgo Zaldua taldeak Unzitiren kontra jokatuko duen. Ongi ibili ziren arakildarrak eta 2 eta 4 irabazi zioten Unzitari. Sailkapena oso estua dago, Elomendik eta Barasoainek 51 puntu, Bidezarrak 48 puntu eta Zalduek 44 puntu dituztelako.

FUTBOL PREFERENTEA

29. JARDUNALDIKO EMAITZA

Pamplona B - Etxarri Aranatz 3-3

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades 58

12 Etxarri Aranatz 35

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

17:00 Etxarri - Amigó (Iruñea)

Etxarrik preferenteari eutsi dio

Etxarri Aranatzek hiruna berdindu zuen Pamplonaren kontra jokatutako partidari, Iñigok, Agirrek eta Alberdik sartutako golei esker. Igandean denboraldiko azken partida jokatuko dute etxarriarrek baina denboraldiko helburua lortu dute: preferente mailari eustea.

FUTBOL ERREGIONALA

9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Lagun Artea 1-3

SAILKAPENA

IGOERA FASEKO A. MULTZOA

1 Ardoi 22

2 Lagun Artea 18

7 Altsasu 6

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:30 Amaya - Altsasu (Amaya)

IGANDEAN

16:30 Lagun Artea - Urrozterra (Zelai B.)

Derbia lakuntzarrendako

Altsasuk eta Lagun Arteak derbia jokatuko dute Dantzalekun. Imanol Lobok Altsasu aurreratu zuen, baina Yonatan Davilak (2) eta Unai Bakaikok sartutako golei esker hiru puntuak Lakuntzara joan ziren. Igoera fasea bukatzeko 5 jardunaldiren faltan, asko dago oraindik jokoan.

EMAKUMEEN ERREG.

31. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Peña Sport - Altsasu 0-0

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa 80

13 Altsasu 26

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

18:30 Altsasu - Castejon (Dantzalekun)

Altsasuk Tafallatik puntu bat

Peña Sporten kontra husna berdindu eta gero, Altsasuko neskek puntu bat ekarri zuten Tafallatik, sailkapenean postu bat gora egitea ekarri diena. Larunbatean 54 punturekin sailkapenean zazpigarrena den Castejon taldea hartuko dute Altsasuko neskek.



Nafarroako junior mailako selekzioa, sakandarrak tartean. TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA.

Junior sakandarrak oso ongi Nazioarteko Gipuzkoa Klasikoan

TXIRRINDULARITZA Arrieta, Gil, Alberdi, Mintegi eta Aznar Nafarroako selekzioarekin aritu ziren

Asteburuan junior mailako Nazioarteko Gipuzkoa Klasikoa jokatu zen (112 km). Nafarroako selekzioarekin 7 txirrindularik hartu zuten parte, horietatik 5 sakandarrak: Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta eta Aitor Alberdi, Burundako Quesos Albenizko Iker Mintegi eta Unai Aznar eta Lizarteko Jon Gil. Beraiekin Nikolas Agirre eta Jon Jurio lehiatu ziren.

Hasieran Kometa eta Direct Energie taldeko bi txirrindularik ihes egin zuten. Nafarroako Unai Aznarrek atzetik eraso jo zuen, ihes egindakoak harrapatzeko,

baina 15 km pasata tropelak harrapatu zuen. Aurrerago, Igor Arrietak aurreko taldean sartzea lortu zuen eta Uharteko Arakilgo txirrindularia bikain aritu zen, erasokor. Tamalez, Kometa Cycling Team taldeko Carlos Rodriguezek eraso jo zuen eta Gipuzkoa Klasikoa irabaztea lortu zuen (2:50:25). Igor Arrieta 8.a sartu zen, 33 segundora. Jon Gil 48.a sailkatu zen, 1:18ra, Aitor Alderdi 49.a, 1:18ra, Iker Mintegi 71.a, 2:32ra, eta Unai Aznar 87.a, 7:37ra. Taldekako sailkapenean, Nafarroako selekzioa bosgarrena sailkatu zen.

ESKALADA Gazteen urteko eskalada topaketa Etxarrin

Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak Gazteen Urteko Eskalada Topaketa antolatu du asteburuan, maiatzaren 10tik 12ra Etxarri Aranatzan, 18-30 urte bitarteko federatuendako. Ondoko jarduerak antolatu dituzte: eskalada tutoretzapean, eskiak konpontzeko tailerra, aseguru mugikorrek jartzeko tailerra eta materiala probatzeko aukera. Kirolari bakoitzak bere materiala eraman behar du, eta hitzordua gaur, ostiralean, 19:30ean jarri dute Etxarri Aranazko kanpinean.

Bestalde, Mank-ek maiatzaren 24tik 26ra antolatutako eskalada ikastaroan izena emateko epea oraindik zabalik dago.

Afizionatuen VIII. Iturmendi Trofeoa jokoan igandean

TXIRRINDULARITZA Proba 23 urtez azpiko eta eliteen mailako Nafarroako Errepideko Txapelketa da

Afizionatuen tropela gertu ikusteko aukera izango dugu igandean, Urbasa Txirrindularitza Klubak XIII. Iturmendi Trofeoa antolatu baitu, 23 urtez azpiko eta eliteen mailako lasterketa, aldi berean Nafarroako Errepideko Txapelketa izanen dena eta Euskaldun Torneorako baliagarria izango dena.

Txirrindulariak goizeko 10:00etan abiatuko dira eta gutxira 136,8 km osatu beharko dituzte, 22,8 km-ko zirkuituari 6 itzuli eginez. Iturmenditik Altsura joko dute, Altamira por-

Bihar La Peluso martxa zikloturista Irurtzunen

TXIRRINDULARITZA Bihar, larunbatean, goizeko 8:30ean abiatuko da lehenengoz antolatu duten martxa zikloturista Irurtzundik, Irurtzongo Kirol Jardunaldien barruan. Bi aukera daude: 139 km edo 89 km

Irurtzongo Dos Hermanas Txirrindularitza Taldeak La Peluso izeneko martxa zikloturista antolatu du bihar, maiatzaren 11n, larunbatean, goizeko 8:30etik aurrera. Reynolds taldea zenaren 40. urteurrena gogoratu nahi dute horrela. Zikloturistek bi aukera izanen dituzte: 139 km-ko ibilaldia edo 89 km-koa. Bertan parte hartzeko 18 urteko adina izan behar da, gutxienez, eta izena ematea itxita dago gogoneko.

Ibilbide laburrean, Irurtzundik Errotzera joko dute txirrindulariek, Anotzetik Artetara jo eta Goñiko portua igotzeko. Aizpunitik pasa eta gero, Ultzurrun gaina pasako dute eta ondoren Anotzera joko dute, Errotzetik barna Irurtzunera heltzeko. Ondoren, Etxeberri aldera joko dute, Madotzeko portua igotzeko. Segidan Oderitz, Astitz eta Alli gurutzatuko dituzte, Lekunberri aldera iritsi eta Mugirorantz joateko. Udabe, Ihaben, Etxaleku,



Mikel Niever kartelarekin. LA PELUSO

Oskotz eta Ziako gaina pasa eta gero, Irurtzongo bidea hartuko dute, Aizkorbeko bentatik, eta Irurtzongo plazara iritsiko dira, 89 km osatu eta gero. Eta ibilbide luzekoek laburrekoen ibilbide berbera egingo dute Le-

kunberri aldera iritsi arte, baina Mugirorantz jo beharrean, Uitziko porturantz joko dute eta Leitzara, Ezkurrara, Saldiasoko portura, eta Orokietara iritsiko dira, Jauntsaratsen Berueteko porturantz jotzeko. Aldatzen Lekunberri aldera egingo dute, Madotzko portua igotzen hasi eta Alli, Astitz eta Oderitz gaindituta Madotzera heltzeko. Handik Irurtzongo helmugara joko dute, 139 km egindakoan.

Erakusketa, zumba eta spinning plazan

La Peluso martxa burutzen den bitartean, eta Irurtzongo Kirol Jardunaldiak despeditzeko, zumba eta spinning erakustaldia izango da plazan, mailloten eta argazkien erakusketa eta beste. Kirol Jardunaldien barruan atzo Sakanako Ibilaldiaren 30. urteurrenaren inguruan Xabi Unanuak prestatutako bideoa aurkeztu zuten eta herenegun motorra izan zen hizpide.



Aurreko urtean Nafarroako erlojupekoa jokatu zen Iturmendin. ARTXIBOA

Etxeberria eta Aramendia Bidasoako Itzulian

Afizionatuen mailako tropela asteazkenean hasi eta larunbatean despedituko den Bidasoako Itzulian ari da parte hartzen. Nazioarte mailako 20 talde dira

aurten lehiatu daudenak. Bi txirrindulari sakandar daude tropelean: Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Josu Etxeberria iturmendiarrak eta Laboral Kutxako Eneko Aramendia iturmendiarrak.



Beñat Katarain Euskadiko selekzioko gainontzeko kideekin. EUSKADIKO SELEKZIOA

Beñat Katarain eta Joxeja Maiza bosgarrenak

MENDI LASTERKETA Katarain bosgarrena sailkatu zen III. Kanpezu loarren eta Maiza bosgarrena Elomendin

Asteburuan makina bat mendi lasterketa jokatu dira eta korrikalari sakandarrek maila bikaina eman dute atzera ere.

Igandean III. Kanpezu Ioar mendi maratoi erdia jokatu zen, Espainiako Mendi Lasterketen Koparako baliagarria zen hirugarren proba (26,5 km). Goiza frexko esnatu zen, baina zeru urdina; korrika egiteko egun aproposa zegoen. Oier Arizna-barretak sekulako erakustaldia eman zuen eta nagusitasun handiz irabazi zuen lasterketa, errekorra apurtuz (2:17:47). Lau minutu pasa atera zizkion Santiago Mezquita bigarrenari (2:21:21). Euskadiko selekzioarekin dabilen Beñat Katarain lakuntzarra oso ongi ibili zen eta bosgarrena iritsi zen helmugara (2:24:31), eta Jose Antonio Salgado korrikalari beterano altsasuarra 126.a sartu zen (3:22:33). Emakumezkoetan, Euskadi selekzioko Mai-

te Etxezarretak goi mailako lasterketa egin zuen eta errekorra apurtu zuen (2:52:44).

Bestalde, Elok X. Elomendi Xtreme mendi lasterketa hartu zuen igandean, bi modalitatetan: Motza (14 km) eta Luzea (22 km). Proba luzean sekulako erakustaldia eman zuen Iñaki Mihura arraiotzarrak eta bakar bakarrik iritsi zen helmugara (2:00:49), Jose Maria Tiscar bigarrenari 10 minutu atera eta gero (2:10:26).

Joxeja Maiza etxarriarrak lasterketa bikaina egin zuen eta bosgarrena iritsi zen helmugara (2:14:50), eta Mikel San Martin etxarriarra 57.a sartu zen (2:58:01). Emakumezkoetan Huescako Julia Perez gailendu zen (2:55:13), Beatriz Martinezekin lehia estua izan eta gero (2:55:28). Erkuden San Martin etxarriarra izan zen lehen emakume sakandarra, lasterketan laugarren emakumea (3:02:27).

Iturmendik hartuko du aurten bizikleta festa

TXIRRINDULARITZA Maiatzaren 26an izanen da, igandearekin. 9:30ean 2 orduko bizikleta ibilbidea egingen dute eta ondoren auzatea eta kirol materialaren trukea, jolas herrikoiak, bizikleta konpontzeko tailerra eta ipuin ez sexisten txokoa izango dira

Olaztiri lekukoa hartuz, aurten Iturmendik hartuko du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak, Euskara Zerbitzuak eta Berdintasun Zerbitzuak elkarrekin antolatutako bizikleta festa. Maiatzaren 26an izanen da, igandearekin, goizeko 9:30etik aurrera. Antolaketa Iturmendiko Udalaren, Barranka Txirrindularitza Taldearen, Berri Bikes eta Muruzabal bizikleta denden eta Sakanako ikastetxeen eta guraso elkarrekin laguntza izan du Mank-ek.

10 urtetik beherakoek lagunduta joan beharko dute

Adin guztietarako antolatuta dute bizikleta festa, baina 10 urtetik beherakoek nagusiek lagunduta parte hartu beharko dute goizeko 9:30ean abiatuko den bizikleta martxan. Bi ordu inguruko bizikleta ibilaldia izango da, Iturmendi inguruko paraje ederretatik barna. Burunda Klubekoek Bakaikun goizeko 9:15ean jarri dute hitzordua, bertatik Iturmendira bizikletan joateko, elkarte parean, eta ordu berean geratuko dira Urdiainen ere, udaletxe parean, Iturmendirantz joateko. Aukera hori baliatu nahi dutenek izena-ematerakoan horren berri eman beharko dute.



Aurreko urtean Olaztini egin zen bizikleta festa. ARTXIBOA

Auzatea, trukea, jolasak eta tailerra

Bizikleta buelta egin ondoren, goizeko 11:30etik aurrera, makina bat ekimen izango dira Iturmendin: auzatea, kirol materialaren trukea (patinak, erraketak, palak, esku pilotak, eskiak, bizikletak... horretarako ikasleek trukatu dute materiala euren ikastetxeetara eraman beharko dute maiatzaren 21a baino lehen eta trukea egiteko ticketa jasoko dute), jolas herrikoiak, ipuin ez sexisten txokoa eta bizikleta konpontzeko tailerra.

Izena ematea maiatzaren 21era arte zabalik

Sakanako bizikleta festan izena ematea zabalik dago Sakanako Mankomunitatean (948 464 866 kirolak@sakana-mank.eus, 648 070 710 immigrazioa@sakana-mank.eus). Bestela, Sakanako ikastetxeetara jo daiteke izena ematera, Iñigo Arizta ikastola, Andra Mari ikastola eta Arrango Beltza, San Donato eta Urdiaingo herri ikastetxeetan. Antolatuzaileek bizikleta festan parte hartzeko deia egin diete sakandarrei.

Arakilgo mendi martxa

MENDIA Arakilgo Udalak antolatuta, 60 mendizalek hartu zuten parte XI. Arakilgo Mendi Martxan. Jokin Lanz historialariarekin bailarako historia eta Satrustegiko txokoak ezagutzeko aukera izan zuten guztiek. Ondoren, 50 pertsona bildu ziren elkarrean bazkaltzera eta Satrustegiko txondorri buruzko laburmetraia estreinatu zen.



ARAKILGO KULTURA ZERBITZUA

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 10

ALTSASU Gazte agenda. Kroketa challenge.

18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Kiosko, musikarako arkitektura hitzaldia. Hizlaria: Iñaki Uriarte arkitektoa.

18:30ean, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Festak antolatzeko bilera irekia.

19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.

19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Gracias a Dios gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 11

IRURTZUN 'La peluso' zikloturisten martxa. Goiz osoan zehar zumba, spinning, argazki eta mailloten erakusketa...

08:30etan, Foruen plazan.

OLAZTI Maisuenearen urtemuga.

12:00etatik aurrera, gaztetxean.

ETXARRI ARANATZ Musika eskolako entzunaldiak: gitarra, zeharkako txirula, kantua eta pianoa.

17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte txokoen topaketa: gymkana, jolas txapelketa, tailerrak, musika, merendola eta abar.

17:00etatik 21:00etara, Intxostiapuntan.

ALTSASU Valldemossa eta Son Espaseseko Musica i Salut abesbatzen Mallorkako kantak kontzertua.

19:30ean, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Benito Lertxundiren kontzertua.

22:00etan, Atakondoa kiroldegian.

OLAZTI Maisuenearen urtemuga kontzertuak: Alerta Gorria, Irauten, Susurrando a gritos eta Nafarroa 1512 taldeak.

23:30ean, gaztetxean.

IGANDEA 12

OLAZTI XII. lore eta landareen azoka.

10:00etatik 14:00etara, plazan.

Etxarri Aranatz Pintura ikastaroko ikasleen lanen erakusketa.

12:00etatik 15:00etara, plazako estalopean.

ALTSASU Ene Kantak taldearen Satorjator ikuskizuna.

16:30ean eta 18:30ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Abesbatzaren udaberriko kontzertua: Gure altxorra.

19:00etan, elizan.

ALTSASU Gracias a Dios

ZORION AGURRAK

**Maialen Larraza Senar**
Zorionak guapa!!! Beti bezain bixi eta alai seittu!! Etxekuek**Asier Galarza Zubiria**
Igandean 8 urte!
Zorionak familia guztiaren partez! Ongi pasa!**gaurkotasunezko filmaren emanaldia.**

19:30etan, lortia kultur gunean.

ASTELEHENA 13

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea.

12:00ean, Zumalakarregi plazan.

HIRIBERRI Zure memoria aktibatu tailerra Marian Cestau coach-arekin. Xaniturri elkarteak eta Arakilgo udalak antolatuta.

17:00etatik 19:30era, kultur etxean.

ASTEAZKENA 15

ETXARRI ARANATZ**Berrerabilitzearen artea.**

17:00etatik 19:00etara, kultur etxean.

ALTSASU Luis Landero idazlearen *El balcon del invierno* liburuen inguruko solasaldia.

18:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Musika eskolako entzunaldiak: pianoa, txistua eta saxoa.

18:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 16

ALTSASU Gazte agenda: Gozamenez film laburren gala.

18:30ean, Intxostiapuntan.

ALTSASU La sombra del pasado gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

19:30etan, lortia kultur gunean.

**IRURTZUN Txirindularitzaren historia** Irurtzunen 1969-1989 argazki erakusketa. Maiatzaren 3tik 11ra. 09:00etatik 19:00etara, Barazkigune karpan.**LAKUNTZA** Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena. Maiatzaren 10era arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, liburutegian.**IRUÑEA** Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena. Maiatzaren 14tik 25era. Astelehenetik larunbatara 09:30etatik 24:00etara Geltokin.**ALTSASU Kurdistan, gerratik haratago** erakusketa. Maiatzaren 12ra arte. Astelehenetik igandera 18:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.**ALTSASU Itziar Nazabal** tailerraren ikasleen lanen erakusketa. Maiatzaren 13tik 26ra. Astelehenetik igandera 18:30etik 21:00etara, lortian.**DEKOVEN NAVARRA**
CARPINTERÍA DE P.V.C.

Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELA



Miren Jauregi Flores

Maiatzaren 2an hil zen



Agur tia Miren, zella ein biakiu zu ahaztutzia.
Gui biyotzetan betiko yonen za.

Harinerako zui illebak
Etxarri Aranatz

ESKELA





Maritxu Maiza Erdocia

"Fan dakigu Bergerako ahizpe gaztena"
Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik


Maiza familia

OROIGARRIA



Pituti Osinaga Labaien

I. urteurrena



"Zuk utzitako hutsunea baino askoz ere
handiagoa da eman diguzun guztia"

Maite zaitugu

Zure familia

JAIOTZAK

- **Aimar Beloki Sanchez**, apirilaren 29an Etxarri Aranatz
- **Aratz Huarte Vitoria**, maiatzaren 6an Irañetan

HERIOTZAK

- **Prudencia Vargas Valdes**, apirilaren 30ean Iturmendin
- **Modesto Cano Serrano**, maiatzaren 3an Altsasun
- **Juana Parras**, maiatzaren 4an Iturmendin
- **Benito Goikoetxea Ollakindia**, maiatzaren 4an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO


«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

EGURALDIA ASTEBURUAN



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ETXEA ALOKAGAI

Lixarregon familia bakarreko etxea alokagai: 3 logela, bajera, portxe eta lursailarekin. Hornituta, egur berogailua. Ez dira animaliak onartzen. Tfnoa 659 04 23 72

OHARRAK

Odol-emateak Irurtzun: maiatzaren 15ean, 16:45etik 20:30era, www.adona.es

Odol-emateak Etxarri Aranatz: maiatzaren 22an eta 29an, 17:00etatik 20:30tara. www.adona.es

Etxarriko irakurle taldea: ekainaren 6an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranatzko liburategian elkartzeko dira eta Paul Auster-en

Sunset Park liburuzari Bideak dokumentatu zaude.

XALOA TELEBISTAN "Nafarrak Munduan" saiorako nafar abenturazaleen bila dabilta. Atzerrian bizi izandako gazte zein heldu; lan kontuengatik, ikasketa kontuengatik edo dena delakoagatik beste lurralde batean denbora batez bizitako esperientzia kontatzeko Sakanako norbaiten bila dabilta. Saioa elkarrizketa dokumentala izango da. Harremanetan jartzeko produzioairuinerria@xaloatelebista.eus helbidera idatzi.

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arbazuarraren erronkan parte hartzea gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabaraino mendilaster-

keta eta gazta trukaketa Bideak dokumentatu jasoazteko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideak-dokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzen ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AEkren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkar-tzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan

da, han egiten dira bilerak.

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarien aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakanarrekin 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119.

www.iragarkilaburak.eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

✉ @Grupolrache

f Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

"Nik nire mundua hemen daukat"

BENITO LERTXUNDI ABESLARIA

'Ospakizun gauean' diskoaren kontzertua eskainiko du Benito Lertxundi abeslariak bihar, 22:00etan, Irurtzungo Atakondoa kiroldegian

E. Carreño - E. Ruiz IRURTZUN

50 urte baino gehiago daramatza Lertxundik musikaren munduan. 'Ospakizun gauean' diskoa kale-ratu du sei urte ondoren, eta bihar, larunbata, 22:00etan, Irurtzungo Atakondoa kiroldegian diskoan oinarritutako kontzertua eskainiko du.

Euskal Herrian nonahi, baina kanpo kontzertuak ez omen dituzu ematen. Zergatik?

Euskaraz kantatzen dugunok kanpoan ez gara oso ezagunak. Agian orain ezagunagoak gara. Kanpoan kantatzeko, hasteko, bidaia luzeak egin behar dira eta gu jende asko gara. Munduan zehar kontzertuak emateko prest nago, baina hemengo maila izan behar dute. Kanpora joaten garenean garestitu egiten da dena eta antolatzea oso astuna da. Ezinezkoa izaten da. Baina gauza duin bat egiteko prest nago. Duela hiru urte Parisen egon ginen eta baldintzak oso onak izan ziren. Nik nire mundua hemen daukat. Mundua ez da txikia edo handia, egiten duzuna da.

Kontzertuetarako lekuak aukeratzeko lehentasunak dituzu?

Hartuta baldin badaukat toki bat, hori beti da lehena. Ez diot uko egingo, pisuzko arrazoi bat ez badago. Moskutik deitzen badidate, beste egun batean izango da.



Benito Lertxundi abeslaria kontzertuan. UTZITAKOAK

Baina zuzenekoak egiteko tokiek baldintza batzuk bete behar dituzte.

Talde handia gara. Hamar bat lagunez osatuta. Gertatzen dena da pertsona bat sartzen dela eta urteekin gurekin jarraitzen duela. Norberak egin behar du toki horretan ahalik eta ondoen. Aspalidanik hasi nintzen gauza askori uko egiten, eta gauza askori uko eginak ekarri dit gero nolabait pedagogia pixka bat egitera. Jendeari erakusteko gauzak ez direla edozein tokitan egiten. Ahalik eta toki egokienean egin behar dira. Hau da, kantua-

ri, beste gauza askori bezala, bere tokia, bere etxea, egin behar zaio. Tenpoa deitzen diodana. Norberak ez badu bere lana zaintzen inork ez du zainduko. Ongi funtzionatzen duen tokietan eta orduetan jotzeak bere uzta uzten du.

Sei urte diskorik gabe, eta kaleratzen duzunean autoekoizpenez egindakoa izan da. Ausarta izan zara.

Disko bat egiten duzunean, eta asko egin ditugu, ez dakizu zer dagoen disko horren atzetik. Lan bat egiten duzu eta kanpora joateko, jendearengana iristeko,

bideratzen duzu. Enpresa bat dago, industria bat, hori egiten duena, eta diskoaren alde hori uzten duzu bere gain. Zer gertatzen den gero emaitza horrekin ere ez dakizu. Kontratu bat dago. Orduan, beste alde hori ezagutu nahi genuen, eta kontent nago.

Zer ospatzen duzu gauean?

Gauza asko ospatzen dira. Metafora bat da. Gizakiek, herriek, historian zehar bizi joan-etorrian gauzak ospatu dituzte. Gure buruan dauzkagu ospakizun mota asko. Gure burua estimuluak sortzeko tresneria da ospakizunen mundua. Jaiotzen gara, eta mundu honetara inuxente etortzen gara. Bat batean bideak ematen zaizkigu, eskaintzen zaizkigu, eta bide horietan ohitu egiten gara. Ohiturek pentsatzeko modu bat sortzen dute. Ekipamendua atrofiatzen da eta eratuta dagoen liturgia horretan galtzen gara. Arazo psikologikoak sortzen ohi dira ez dugulako ulertzen zer egiten dugun, eta galdera potolo asko daude.

Mundu nahasi honetarako soluzioa baketsu izateko arrazoiak izango ez direnean etorriko al zaigu?

Bai. Ez gara konturatzen bakea dela ondorioa. Ondo zaudenean bakean zaude. Galdetu behar diozue zure buruari zergatik ez zauden ongi edo gaizki. Ongi egotea bakarrik egoten da. Desikasten duzunean esentzia aldatzen da.

Desikaste prozesua aipatu duzu. Ikastea bere maila gorenera iritsita diskastea proposatzen duzu. Gure izatea galdu dugulako?

Estali. Kontzientzia galdu. Beharbada heldutasun mailarik handiena jaiotzen garenean dugu. Ikastea ongi dago: lanbidea, ofizioa, ogia irabazteko tresnak... Naturak prestatu digu horretarako. Ohitu behar dugu gure gorputza gauza horiek erraz

egiteko. Hori ikastea da. Baina sartzen garenean psikologian, zer egiten da? Gogoak, infinitua den hori, adimena edo sena, estali egiten da. Atrofiatu edo galtzen da. Kontzientzia galtzen da eta besteek diotenaren atzetik egoten zara. Artalde bihurtzen gara eta ez gara konturatzen. Kontzientzia berri bat lortu behar dugu eta, orduan, hasten zara kontzientziaren jabe izaten. Horixe da proposamena.

Bizitzaren adar batzuei buruz hitz egiten duzu diskoan.

Beti gaude pentsatzen, estimuluena bila. Natura horretan egoki gaude. Eta hori disfuntzioa da. Naturak berezko gauzak sortu ditu, beste zenbait helburuekin. Pentsamendua da gure egoa. Guzti hori erlatibizatzen denean eta neurria jartzen zaionean, ez dizu ezerk beldurra ematen. Hil edo bizi, hil eta jaio. Dena berdina da. Beti gara aldakorrak, baina ez gara konturatzen denborak eraman duelako. Bakarrik hiltzen dena jaiotzen da. Baina gauza bat modu batera ospatzen dugu eta bestea beste batera.

Nolakoak dira zure jarraitzaileak?

Belaunaldi guztietan eta kultura guztietan konstante batzuk daude. Eta nik badudala pentsatu nahi dut. Bestela aspaldi utziko nion. Kontzertuak posible egiteko jendea egon behar da aurrean. Duela 54 edo 55 urte hasi nintzen kantatzen eta garai horretako publikoa ez dago joan direlako. Ezinbestekoa da belaunaldi erreleboa.

"EZINBESTEKOA DA BELAUNALDI ERRELEBOA, BESTELA ASPALDI UTZIKO NION KANTATZEARI"

Ikasitakoa plazaratzen

Altsasuko Dantza eta Musika Eskolako ikasleek kontzertu handia eskaini zuten igandean, lortia zabalgunean. Urteko emanaldirik garrantzitsuenetarikoa da, izan ere, ikasturtean zehar ikasitakoa plazaratzen dute musikariek eta dantzariak. Asteburuan ospatu diren Altsasuko Alde Zaharreko Euskal festen barruan egin zuten emanaldia.



'Kioskoa, musikarako arkitektura' hitzaldia gaur, Altsasan

Kioskoak musika zabaltzeko helburuarekin sortutako eraikinak dira. Izan ere, ilustraziora arte musika gutxi batzuen esku zegoen: noblezia, burgesia, eliza eta abar. Udal banden sorrerakin, kioskoak ere eraikitzen hasi ziren. Iñaki Uriarte arkitektoak *Kioskoa, musikarako arkitektura* hitzaldia egingen du gaur, Iortia kultur gunean, 18:30ean.



Altsasuko kiosko zaharra.

"Hogei hizkuntzatako abestiak hautatu ditugu"

MARIA JESUS PALAZUELOS ETA OIHANA RAZKIN ETXARRI ARANAZKO ABESBATZA 'Gure Altxorra' kontzertua egingen du igandean Etxarri Aranazko abesbatzak. Herriko elizan izanen da emanaldia, 19:00ean

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANAZKO Udaberriro Etxarri Aranazko abesbatzak kontzertu bat eskaintzen du. Disney animazio pelikuletako abestiekin arrakasta lortu zuen, Burundar txistulariekin ahots eta txistu doinuak uztartu zituzten, eta musika garaikidearekin ere ausartu dira. Aurtengo udaberriko kontzertua, berezia izanen da, izan ere, hizkuntz indigenak hartu dituzte oinarri. *Gure Altxorra* da kontzertuaren izenburua eta igandean, maiatzaren 12an, egingen dute, 19:00ean, Etxarri Aranazko elizan. Belarrietarako altxorra. **Udaberriean, urtero, kontzertu bat egiten du Etxarri Aranazko abesbatzak. Guztiak dira bereziak, baina aurten bereziagoa dela esan daiteke.**

Bai, urtero udaberriko kontzertu ezberdin bat egiten dugu, baina aurtengoa tematikoa izango da, hizkuntza indigenei eskainitakoa. Abestien hautaketa publiko orokorarentzat erakargarria dela uste dugu, eta gainera eszenaratzeari garrantzi berezia emango diogu. Izan ere, abesten dugun bitartean instrumentuak erabiliko ditugu, dantza pixka bat egingo dugu eta jantzien osagarri batzuk erabili ditugu. Horrez gain, kanta bakoitzarekin bideo bat proiektatuko dugu publiko munduan zeharreko bidaia batean murgilduz.

Nola sortu zen ideia?

Nazio Batuen Elkarteak 2019 urte hau Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea izendatu zuen bere Asanbladan. Hizkuntza hauen berri eman eta mantentzea, biziberritzea eta erabilera sustatzea da helburua. Guk gure ekarpena egitea pentsatu dugu hobekien dakigun moduan, musikaren bitartez hain zuzen ere. **Zeintzuk dira hizkuntza horiek?**

Kontzertua prestatzen hasi ginen zalantzak sortu zitzaizkigun hizkuntza indigena, hizkuntza gutxitu eta antzeko ter-



Etxarri Aranazko Abesbatza Disney abestiekin egindako kontzertuan. UTZITAKOIA

"GEHIEN KOSTATZEN ARI ZAIGUNA HORRENBESTE HIZKUNTZATAN ABESTEA DA"

minoekin. Batzuetan, hizkuntza indigena kontzeptua modu zehatz batean erabiltzen da, isolatuak bizi diren herri indigenen hizkuntzak adierazteko. Beste batzuetan, modu orokorrago batean aipatzen da, toki bateko jatorrizko hizkuntza adierazteko. Guk, bigarren ikuspuntu hau erabili dugu kontzertua diseinatzeo, hizkuntza gutxituei garrantzi berezia emanez. Guztira, 20 hizkuntza hautatu ditugu, tartean zapotekera, tokelauera, samiera, zuluera, swahilia, tamiler, gaelikoa, sardiniera eta abar.

Nola lortu dituzue abestiak? Zaila izan da?

Bai. Denbora bat behar izan genuen hautaketa egoki bat egiteko eta partiturak lortu ahal izateko. Abesbatzako talde bat bilaketak egiten aritu zen eta aurkitutako guztiaren artean kanta gustuko eta egokienekin geratu

ginen. Kontinente ezberdinetako kantak gotea saiatu gara, eta estilo desberdinetakoak. Uste dugu hautaketa polita egin dugula.

Zeri buruz hitz egiten dute abestiek? Denetarik dago, besteak beste: eguzkiari edo naturari eskaintako erritu kantak, maitasun kantak, jai-giroko abestiak, lo kantak...

Hizkuntza indigenetan abestuko duzue. Nola izan da hauek ikaste-prozesua?

Abesti batzuk beste batzuk baino zailagoak dira, eta horietan lan gehiago egin behar izan dugu. Hala ere, gehien kostatzen ari zaiguna horrenbeste hizkuntzatan abestea da. Ahalik eta ahoskatze egokiena egiten saiatzen ari gara, baina hainbeste hizkuntzatan irakurtzea zaila egiten zaigu.

Aurrera begira, erronka gehiago dituzue?

Aurtengo urteari begira proposamen batzuk jaso ditugu eta haien inguruan hausnartu behar dugu. Dagoeneko Gabonetako kontzertuan pentsatzen hasiak gara, tematikoa izango delako. Baina oraindik forma ematen ari gara.



BAZTERRETIK

JUANKAR L. MUGARTZA

Lastozko txakurrak

Lehengo egunean Sam Peckinpah zinema zuzendariaren *Straw Dogs* (Lastozko Txakurrak) pelikularen *remake* bat ikusi ahal izan nuen telebistan. Gordon Williams idazlearen nobela batean oinarrituta dago. Liburua 1969koa da eta pelikula 1971koa, biak Vietnameko gerraren garai latzenetan eginak. Indotxinan, armadaren napalm eta gehiegikeriak. Amerikan, berriz, hippien mugimenduaren loreak eta Khrisnaren omenezko kantuak. Liburua eta pelikula indarkeriaz eta bake nahiaz ari dira, baina ez gerra baten testuinguruan, baizik eta gure herri arrunt eta aspertu batenean.

Iruñean pelikula estreinatu zenean, ume txiki bat baizik ez nintzen, baina gogoratzen dut oraindik Principe de Viana Zineman jarri zuten kartela: bertan Dustin Hoffman-en aurpegi serioa ikusten zen, jipoiu izan balute bezala, eta bere betaurrekoen bi kristaletako bat hautsita zeukan. Letra handitan hau irakur zitekeen: Lastozko Txakurrak. Gizon triste hura txakur batzuek erasotua izan zela zirudien.

Halere, anai-arreba nagusien bidez jakin ahal izan nuen pelikulan ez zela txakurrik agertzen, ez lastozkorik, ezta hezur haragizkorik ere. Ez nuen ezer ere ulertzen.

Remake berriak gakoa ematen du, espresuki esaten baitu "lastozko txakurra" zer den: taoismoaren barneko esapide bat da, Lao-Tse filosofoak Kristo aurreko 600. urtean sortua. Antzinako Txina inperialean lastozko panpin hauek erabiltzen ziren jainkoei eskaintzeko sakrifizio modura.

Txakur amorratuak edozeinentzat beldurgarriak badira ere, jakintsuarentzat ez, lastozkoak balira bezala erabiltzen baititu.

Taoismoaren filosofian jakintsuak jende zakarrarekin honela jokatu ohi du beti.

Jakintsuak ez du indarkeria onartzen, gizaki aberetuen jipoia jasan dezake, betaurrekoen kristalak apur diezazkioke, barre eta irri egin diezazkioke, baina esnatzen da berak maite dituenek ikutzen badute eta haserretzen da urde zikinek beren portaerari behingoz uzten ez badiote. Jakintsuak orduan sakrifizioan eskaintzen ditu lastozko txakurrak bezala.



IORTIA KULTUR GUNEA

Dantzaren eguna ospatuz

Apirilaren 29an Nazioarteko Dantzaren Eguna izan zen eta Altsasuko Irantzu Gonzalez Dantza Eskolak ostiralean, maiatzaren 3an, ospatu zuen, Alde Zaharreko festen barruan. Eskolako hiru taldek egunerako egindako koreografiak dantzatu zituzten, eta Milakolore elkarte eta Dantzazimako kideek Milakolore Dantza-eko pieza bat eskaini zuten ere.

Hezkuntzan musika aldarrikatzeko, plazara

Barañaingo Alaitz eta Altsasu institutueta 250 bat ikaslek kontzertu erraldoia eskaini zuten aurreko ostegunean, maiatzaren 2an, Iortia zabalgunean. Kontzertua 'Musiqueando' ekimenaren barruan sartzen da

ALTSASU

"Musikaren helburua da egiten duguna, sentitzen duguna, transmitzea, eta transmitzeko kontzertuak daude". Inigo Aldunate Altsasu institutuko irakaslea da. Aurreko ostegunean, maiatzaren 2an, kontzertua erraldoia egin zuten Altsasuko eta Barañaingo Alaitz institutueta 250 ikasle inguruk parte hartu zuten Iortia zabalgunean egindako ikuskizunean. Gainera, kontzertu honekin *Musiqueando* ekimenearekin bat egin zuten. Klaseetan lantzen dutena kalera, plazara, ateratzen dute. "Erronka bat da", baina kontzertua egitea irakasgaiaren egunerokotasunean txertatu dute.

Musika irakasgaia dagoen DBH mailetakoa ikasleek parte hartu zuten *Musiqueando* kontzertuan. Altsasuarrak 200 bat ziren eta Alaitz institutuetik 50 bat ikasle etorri ziren. Barañaindarrak, gainera, ikasle "bereziak" dira, Arte eszenikoen batxilergoko ikasleak dira. Beraz, musikaren, dantzaren eta antzerkiaren munduan murgilduta daude. "Artista goak dira". Altsasuko kontzertuan sortutako musikalaren pieza batzuk ikusteko aukera egin zen. "Berezia izan zen". Maiatzaren 7an bisita itzuli zuten, eta kontzertua Barañainen egin zuten.

Hezkuntza

"Musikaren zati handi bat praktikoa da. Guk zati praktikoa hori kontzertura bideratzen dugu". Abenduan, gutxi gora behera, hasten dira kontzertu erraldoia prestatzen. Ikasle gehienek txirula jotzen dute, baina beste hainbat instrumenturen laguntza dute. Abestien moldaketak eta errepertorioaren aukeraketa irakasleek egiten dute. Dantzaren tarteak egon zen ere kontzertu erraldoian, bi institutueta 250 ikasleek eskutik.



Altsasu eta Alaitz institutueta 250 bat ikasle aurreko osteguneko kontzertuan.

ALTSASU INSTITUTUA 2001. URTEAN BATUZEN ELKARLANEAN EGITEN ZEN KONTZERTURA

"Zailena goizeko entsegua izaten da". Lehenengo su proba da. "Luzea egiten zaie askotan errepikatu behar delako eta arreta mantentzea kostatzen zaie, baina ulergarria da". Arratsaldean, publikoaren aurrean, "gogo, ilusio eta arreta guztia jartzen dute".

Musikaren garrantzia

2001. urtean batu zen Altsasu institutua Leitzako, Lekarozko, Doneztebeko eta Berako zentroek elkarlanean egiten zituzten kontzertuetara. Ikastetxeen arteko parte hartzea aldatu den arren, kontzertu erraldoia "urteroko kontua" da. Aldunate 2011. urtean etorri zen Altsasu institutua eta ordutik Iruñerriko institutuarekin kontzertua antolatzen du. "Irakasleek antolatzen dugu hau, beraz, ezagunen artean hitz egiten dugu".

Hezkuntza musikalaren garrantzia aldarrikatzeko COAEM musika irakasleen elkarteak sortu zen estatu mailan. "Kontzertu erraldoi hau aurretik egiten genuen, ondoren elkarteak sortu zen eta bertan adostu zen egun bat aldarrikapen moduan hartzea".

"*Musiqueando* deitu zioten". Hortaz, *Musiqueando* egunean musika geletatik plazetara eta kalera ateratzen dute, musikaren presentzia sustatzeko. Aurten apirilaren 11n ospatu zuten *Musiqueando*, baina "oporrak nahiko berandu izan zirenez" beste egun batean ospatu zuten eguna Altsasu institutuko musika ikasleek eta irakasleek. Nafarroan 2700 ikasle inguru atera ziren kalera musika jotzera eta musikaren garrantzia erakustera.

Musika ikasketa "gauza askorengatik" da garrantzitsua, hala ere, Aldunatek kontzertu honetan "talde lanean aritzea" nabarmentzen du. "Denek zaindu behar dute noiz jotzen duten, zer jotzen duten, noiz isiltzen diren...". Bestetik, garapen pertsonalean, erritmoan, irakurketan edota matematikan laguntzen du.



Valldemossako abesbatzak bihar kontzertua eskainiko du Altsasun. UTZITAKOIA

Mallorcako doinuak bi abesbatzen ahotsetan

Erkudengo Ama abesbatzak Mallorcako bi abesbatza ekarriko ditu bihar, larunbata, 19:30ean, Iortian

ALTSASU

Musikak mugak gainditzen dituela diote. Oraingoan Mediterraneo itsasoa ere gaindituko dute Mallorcako Valldemossako eta Musica i Salut abesbatzek Altsasun egoteko. Herriko Erkudengo Ama abesbatzaren gonbidapena jaso dute eta bihar, larunbata, kontzertua eskainiko dute, 19:30ean, Iortia kultur gunean.

Bi abesbatzek lotura indartsu bat dute: Pilar Noguera zuzendaria. Valldemossako eta Musica i Salut Palmako abesbatzeta-ko zuzendaria ez ezik, Valde-

mossako musika eskolako irakaslea eta irlako beste hainbat abesbatzeta-ko zuzendaria ere bada.

Abesbatza bisitariak ez dira bakarrik egongo, izan ere, Erkudengo Ama abesbatzak *Bolero* kantarekin irekiko du kontzertua. Bolero Eduardo Correararen kanta bat da. Musikaria abenduan hil zen eta Altsasuko abesbatzak omenaldi xumea egin nahi dio biharko kontzertuan haren abestia lehenengo aldiz interpretatzen. Mallorcako abesbatzei paso eman aurretik, *Ilunabarra* abestuko dute ere.

MAIATZAK 12 IGANDEA, 16:30 / 18:30

ENE KANTAK

SATORJATOR

LIBELLEN BIHOTZEA

AZKEN SARRERAK SALGAI!

ENE KANTAK - www.enekantak.org

Iortia

11 GALDERA

"Lasterbidean ez da bakarrik lasterketa bat"

Maiatzaren 19an Arbizun eta Lakuntzan VII. Lasterbidean nazio elkartasun lasterketa jokatu da. Lasterketa bat baino askoz ere gehiago da, egun osoko aldarrikapena. Horri buruz aritu gara Xochitl Karasatorre, Fran Balda eta Jon Ligüerzanarekin

Eneida Carreño eta Mainer Betelu

1 Zer da Lasterbidean?

Jon: Lasterbidean kirolaren mundutik sortutako herri ekimen bat da, nazio elkartasun lasterketa bat, euskal errepresaliatuekiko eta beren gertukoekiko elkartasun herri ekimena. Aurtengoa 7. edizioa izango da jarraian, maiatzaren 19an Arbizun eta Lakuntzan jokatu dena.

2 "Bidea laster egiteko, lasterbidean sortzen ari gara. Lasterbidean izango ditugu; etxera bidean" diozue. Bide horretan, non gaude?

Xochitl: Etxerako bide horretan gure eskura dagoen guztia egiten ari gara. Maiatzaren 3an urte bat bete zen ETA desagertu zenetik eta oraindik ere dispersioarekin jarraitzen dugu. Mugimendu txiki batzuk egon dira baina ez dira nahikoak. Guk exijitzen duguna da preso hauek Euskal Herrian egon behar direla, bere eskubidea delako. Hala ere, esan beharra dago Euskal Herritarrekin oso eskertuta gaudela, eskubide urraketa hauen aurrean jendearen erantzuna oso ona izaten dela beti, izugarria. Duela bi urte Lakuntzan, musikaren esparrutik Euskal Herrian

inoiz egin den elkartasun jaialdirik handiena egin genuen, eta orain kirolaren eremutik tokatzen zaigu: Lasterbidean egingo dugu.

3 Sakanan presoaren egoera nola-koa da?

Xochitl: Altsasuko preso ez aparte, sei preso ditugu kolektiboan, denak etxarriarrak, estatu espainiarreko eta frantziarreko espetxeetan sakabanatuak: Asier Karrera, Juan Ramon Karasatorre, Luis Mariñelarena, Unai Parot, Oihan Barandalla eta Jon Gurutz Maiza. Preso larrien zerrendan dago Maiza; etxean beharko luke.

4 "Leixterka denak itxaa" da Lasterbidean aurtengo leloa.

Fran: Bai, hemen esaten den bezala. Hasieran planteamendua zen Lakuntzan egitea, baina Arbizurekin elkarlanean egingo da. Lanak banatu ditugu: batzuk lasterketako antolaketa, beste batzuk bazkaria eta arratsaldeko ekimenak... hor gabiltza, jendea zerrendetan apuntatzen. Badoa.

5 Sakanak atariak zabaltzen dituz halako ekimenendako, baina Lakuntza aipatzekoa da.

Fran: Lakuntza ikaragarria da. Duela bi urte Hatortxu rock jaial-

di erraldoia bertan antolatua zuen eta aurretik beste Hatortxu bat, 10. urteurrenekoa. Eta oraingoa ere, beti prest. Lakuntzarren lana eta auzolana beti aipagarri.

6 Zenbat korrikalari espero dituzue? Zein da erronka?

Jon: Erronka garrantzitsua jarri dugu: lasterketa luze eta txikiaren artean 1.500 korrikalari bilitea. Iaz 1.000tik pasa ginen, ea aurtun 1.500 garen.

7 Hau ez da bakarrik lasterketa bat, egun osoko egitaraua dago...

Fran: Goizeko 9:00etan dortsal banaketa hasiko da Arbizun, eta 10:00etan zumba beroketa izanen da plazan. Goizeko 11:00etan lasterketa handia hasiko da (7,4 km), Arbizu eta Lakuntza artean, eta 12:15ean lasterketa laburra irtingo da (2 km). 13:00etan sari banaketa eta ekitaldi nagusia izanen dira Arbizun, eta 14:00etan elektrotzaranga batekin kalejiran abiatuko gara Lakuntzara, hango frontoian izango baita bazkari erraldoia. Ondoren, 16:30ean zirko tailerra izanen da Lakuntzan, 17:30ean herri kirolak eta 18:00etan kontzertuak Al Karajo eta Anita Parker taldeekin; DJ Bullek ere musika jarriko du.



Jon Ligüerzana, Fran Balda eta Xochitl Karasatorre antolatzaileak.

8 Lasterketako izena ematea non egin behar da? Eta bazkarirako txartelak non eros daitezke?

Fran: www.lasterbidean.eus web gunean, maiatzaren 17ra arte (15 euro). Izena ematearekin batera korrikalarietako bazkarirako txartelak erosi ahalko dituzte. Bestalde, bazkarirako txartelak salgai daude Sakanako zenbait tabernetan.

9 Beste eskertzen bat egin nahiko zenukete?

Jon: Lakuntzako eta Arbizuko udalei eskertu nahi diegu, kriston lana egiten ari direlako. Sakanako beste udaletatik ere eskenatokiak, mahaiak, aulkiak eta abar utzi dizkigute. Eta urteroko babesleei baita ere.

Fran: Benignoren bazkari taldekoei ere; lan handia egingo dute bazkari erraldoia prestatzen.

10 Lasterbidean egun osoko festa izango da, baina eguna pasata hortik aurrera zer?

Xochitl: Lanean jarraitu beharko dugu, euskal presoaren eta senitartekoaren eskubideak etengabe urratuak izaten direlako.
Fran: Aktibazio soziala klabea da, bakoitzak bere eremutik ekarpena egitea, egoera lazarri honen buka dezagun.

11 Lasterbidean ongi joan dadila!

Hirurak: Eskerrik asko! Eta sakandarrak parte hartzera animatu daitezela! **Osoa: guaixe.eus.**

2019-2020

IKASLE ETA IRAKASLE AGENDAK







**DISEÑO GRAFICO
WEB DISEÑO
KOMUNIKAZIOA**

948 564 275
info@gkomunikazioa.eus